



ARGIA

SOLDADUTZA BUELTAN DA

MACRONEK INDARREAN JARRI NAHI DU 2019AN



LARRUN:
SIMAURRAREN
GORAZARRE

AEB-AK ITUN NUKLEARRETIK
IRTENDA, GERRA HOTZ USAINA
BERRIRO EUROPAN

INFOGRAFIA:
BERTSOLARITZA ETA
FEMINISMOA





EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



eman izena

www.euskaraldia.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Gaizki erranka
- 7 Ez hanka ez buru
- 8 Ekonomiaren talaian
- 10 AEBak INF itun Nuklearretik irtenda, Gerra Hotz usaina berriro Europan

IRITZIAK

- 17 Aiala Elorrieta Agirre
- 18 Irati Elorrieta
- 19 Mikel Basabe Kortabarria Edu Zelaieta Anta
- 20 Fermin Erbiti



- 27 GORPUTZA
- 35 DENBORAREN MAKINA
- 36 BIZI BARATZEA
- 38 AZOKA
- 39 KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGİ-KONTRA: PILAR MAYO
- 54 BERANDUEGI

Erabakia iragarrita dauka Donald Trumpek: irismen ertaineko misil nuklearrak debekatzen dituen INF itunetik irtengo dira AEBak.

SAKONEAN

- 12 | Txema Aizpurua: "Bizipenen bidez egin nuen euskararekiko lotura afektiboa" / Miel A. Elustondo
- 21 | Derrigorrezko soldadutza indarrez berriz ere / Mikel Asurmendi
- 28 | Gauerako aterpea ala iraultza? / Z. Oleaga
- 32 | Mona Chollet: "Ezinezkoa da noizbait sorginaren rolean ez aurkitzea" / Revue Ballast
- 40 | Bertsolaritzaren genealogia feminista, infografia batean / Estitxu Eizagirre
- 44 | Aimar Uribesalgo: "Poema batek min eman behar du" / Kepa Matxain

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOKI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Txentxo Muñoz.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetza: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus





PANORAMA

Ikusezinak

Beren begiradak, bisaia, eskuak dira ikusezinak. Baina baita beren zauriak, ametsak eta historiak ere. Isilpeko siluetak. Emakume, gizon eta ume tankerako mantak. Begien bistakoaren parte, inork ikusten ez duen horrena. Egunero-egunero 500 pertsona baino gehiago heltzen dira Espainiako Estatuko kostaldeetara. Bizirik daudenak ailegatzen dira, ikusi nahi ez ditugunak, informatiboetako lerroburretan azaltzen ez direnak. Inor zain ez duten horiek heltzen dira.

Eta halere, mugak gaingitzen dituzte. Ausartu, apustu egin eta amets egiten dute. Heldu, borrokatu eta biziraun egiten dute. Ikusezin eta isilik, inor entzuten ari ez denean.

Argazkia eta testua: Sara Montesinos eta Martí Albesa (Talaia)

t “Aho bete hortz Jaurilaritzako Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiriarekin. Belarriprest izango da, Bilbon, bizi den inguruan euskaraz hitz egitea ‘oso zaila delako’. To ahalduntzea”

@larbelaitz

t “Hilabeteak pasa ditugu azaldu nahian Ahobizi eta Belarripresten artean ez dagoela jerarkiarik. Hobe dela Belarriprest aktibo bat bere rola beteko ez duen Ahobizia baino”

@betihesean

t “Niri ere zimiko bat eragin dit. Hernanin bizitzen jarraituko balu Ahobizi zatekeen euskaldunzaharra, Bilbo bizileku izanik Belarriprest... Kultura Sailburu izanik... aktiboagoa nahiko nukeen”

@enazjosebarandi

f “EAJren hizkuntz politikaren ispilu. Oposiziozik gabe, hori ere esan behar da”

J J Agirre



@KOKOTEKO

Dagoeneko 220.000 herritarrek erabaki dute GEDen kontsultetan

Gorka Peñagarikano

@gorkap34

Erabakitzeko eskubidearen inguruko eztabaida gizarteratzea helburu, joan den asteburuan Donostian, Irunen eta Enkarterrietan herri-galdeketa egin zituen Gure Esku Dagok. Zein etorkizun politiko nahi duten aukeratu zuten 28.704 lagunek.

Azken lau urteetan, 217.795 herritarrek baino gehiagok erabaki dute dagoeneko, egin diren 208 herri galdeketa. Joan den astean, Donostian 21.015 lagunek bozkatu zuten (%13,1ak), Irunen 4.890ek (%9,15), Zallan 1.228 herritarrek (%16,99), Balmasedan 1.081 lagunek (%16,38) eta Alonsotegin 470ek (%18,75). 2014an Etxarri Aranatzeko ekin zitzaion etorkizuna erabakitzeko herri kontsultei, eta lau urte

pasa ondoren iritsi da lehen aldiz hiriburu batera, Donostiara.

Ezberdina izan da herri bakoitzean zuzendu den galdera. Antolaketa prozesuan tokian tokiko herritarrek adostu dute euren artean. Donostian, “etorkizun politikoa” beren kabuz eta “aske” erabaki nahi al duten galdetu diete; Irunen, “herriarentzat nolako etorkizun politikoa” nahi duten; Alonsotegin, “euskal estatu independente bateko herritar” izan nahi al duten, eta Zallan eta Balmasedan, “euskal herritarrek beren etorkizun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala erabakitzeko burujabe izatea” nahi al duten.

GEDen bozeramaile Angel Oiarbideren hitzetan, “irudikatuta daukagu loteslea izango den erreferendum batean bozkatuko dugun eguna. Eta dudarik ez daukagu: parte-hartzea historikoa izango da”.

“Torturen arduradun guztiek egin dutena onartzea nahi dut, besterik ez”

MIREN AZKARATE BADIOLA, TORTUREN BIKTIMA

“Nik sinisten dizut: emakume torturatuen egia” ekimenaren baitan hitz egin du Azkaratek. 18 urte zituela “lau eguneko infernua” jasan zuen Madril: “Uneoro biluzik eta begiak antifazarekin estalita izan ninduten. Ura apenas edan nuen, ez nuen ezer jan. Asfixia eragin zidaten hogeitaz baina gehiagotan poltsarekin, hainbatetan konortea galdu nuen; umiliazioak etengabeak izan ziren... Momentu batean pistola bat eman zidaten, nire buruaz beste egiteko. Eta katuari eman nion, baina ez zuen balarik”. **2018-11-13**



GAIZKI ERRANKA

Iragan menderaezina



Santi Leoné
@ororostorm

Ingelesak solas motzak ditu, eta, diotenez, sintaxi sinplea. Alemanak, berriz, hitz luzeak eta sintaxi astuna. Horregatik, Espainia aldean, ingelesa dakite guziek, edo, tira, ikasten ari dira, edo ikasi nahi dute. Alemanak ez du hainbertzeko arrakastarik izan; nor litza-teke, adibidez, *Vergangenheitsbewältigung* bezalako munstrokeria bat ahoskatzeko gauza?

Iragana menderatu, iraganari aurre egin, iragana kritiko aztertu han oinazea eta lotsa eta damua eragiten dituzten osagaiak ezagutzeko eta lantzeko. Horrelako zer edo zer da solas kilometriko hori. Nazismoaren inguruko eztabaidetan erabiltzen den kontzeptua da. Espainian, nonbait, arrakasta guti izan duena. Diskurtso publikoan, bederen, zeren akademian iragan frankistaz arduratu diren historialariak badira. Hainbat tertuliakideren ahotik sortzen den diskurtsoan, berriz, hedapen handiagoa izan dituzte Ernst Nolteren tesiek –alemana izan arren, izen motza duelako, segur aski– Pio Moaren galbahetik igarota: faxismoa txarra bai, baina funtsean, arrisku handiago bati, komunismoari alegia, arrapostua izan zen. Horren itzulpena: 1934an hasi zen Espainiako Gerra Zibila, eta hala errepikatu dute telebista guzietan telebista guzietara gonbidatzen dituzten kazetari jakin batzuek.

Urtetan, irrati anitz eta ez preseski minoritarioetan, Franco ez da diktadore izan, lehenagoko Estatuburua baizik

Urtetan, irrati anitz eta ez preseski minoritarioetan, Franco ez da diktadore izan, lehenagoko Estatuburua baizik, edo, gehienez ere, diktadore ohia. Urtetan, kontu ohikoa izan da Iruñeko Erorien Monumentuan Mola eta Sanjurjo militar kolpisten aldeko mezak egitea, normala izan da faxismoaren gorazarre egitea. Normala da, hortaz, meza horiek grabatu dituzten kazetariendako kartzela zigorra eskatzea, are normalago munduan barna dabiltzan joeren aldean Espainia hain *different* ez den honetan. *Vergangenheitsbewältigung*, zer ote da hori? ■

EZ HANKA EZ BURU!



ANALISIA



Bitxia, Gazteluetak erakutsi duen “determinazio sendoa”



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Gazteluetako irakasle zena kondenatu dute, 12 urteko ikasleari sexu abusuak egin zizkiolako, eta ikastetxeko zuzendaritzak adierazi du “konpromisoa” eta “determinazio sendoa” dutela abusuaren aurkako borrokan. Zein konpromiso baina? Sexu abusuak salatu zirenean ikastetxeak ez zuen protokoloa martxan jarri, ikuskariak hiru aldiz hala eskatu zion arren; urteotan irakaslea nabarmen babestu du zuzendaritzak, haren irudia garbitzen saiatu da; eta lazgarriagoa dena, neurriak hartu zituen biktima gezurretan ari zela sinetsarazteko.

Ikastetxeko zuzendaritzatik esan arren garden jokatu dutela uneoro, praktikan irakaslea babestu dute. Gogoratu 25 ikasle eta irakasle animatu zituztela dokumentu bat sinatzera, biktimaren kontakizuna gezurra zela adieraztea beste helbururik ez zuena (dokumentuan baieztatzen zen inoiz ez zutela ezer arrarorik sumatu, erasoak egin ziren bulegoko atea beti zegoela irekita, irakasleak errespetu handiz jokatzeko zuela beti ikasle horrekin...). Hala ere, ikaskideetako batek biktimari eman

zion arrazoia, besteak beste esanez bulego horretan besteekin baino denbora gehiago ematen zuela erasotzaileak biktimarekin.

Horrez gain, epaiketaren aurretik webgune bat sortu zuen ikastetxeak, berriaz ere irakaslearen izen ona defendatu eta ikaslearen bertsioa zalantzan jarritz.

Prozesua kutsatzen

Konpromiso sendoa beste zerbait da. Gutxienez, protokoloa martxan jartzea, benetako ikerketa abiatzea, abusuak salatu dituenari sinesgarritasuna kentzen saiatu ordez haren hitzak ere aintzat hartzea, eta egia argitzeko prozesua kutsatzen ez saiatzea irakaslearen bertsioaren aldeko kanpaina eginez.

“Atsekabetuta” daudela ere badiu zuzendaritzaren komunikatuak. Tira, egia-aren aitortzak, behintzat, lagunduko al dio ikasle-ohiari ziklo hau ixten. Gertaera haiei lotuta, ez dezagun ahaztu, kanpora joan behar izan zuen familiak, mutila bere buruaz beste egiten saiatu zen eta gaur egun psikologoarenera joaten jarraitzen du.

EKONOMIAREN TALAIAN

Naval ez da Navantia



Juan Mari Arregi

Sestaoko Navalen etorkizuna hain da beltza, bere itxierak saihestezina dirudiena. Eta horrekin batera galduko dira 200 lanpostu zuzen eta 1.800 zeharkako; inguruan bizi diren 4.000 familiari zuzenean eragingo die. Enpresa esanguratsuen itxierek eta langabeziak zigortu dute Ezker-raldea aspaldion. Naval desagitea, industria politika oso baten amaiera izango litzateke, eta erantzule nagusi ditu Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Gobernuako arduradunak. Navalen etorkizuna haien borondate politikoaren esku dago.

Espainiako Gobernuarentzat, Navantia defendatzea –Saudi Arabia-arentzat gerrako materiala eraikitzen duen Cadizeko ontziola militarra– “Espainiaren interes estrategikoak” defendatzea da: “Cadizeko badia langabeziaren dramak gogor kolpaturiko zonaldean dago eta kontratu horren menpe daude 6.000 lanpostu”, esan du 1.800 milioi euroren truke Riad-entzako eraikitzen ari diren ger-rrarako bost korbetari buruz.

Ez al da estrategikoa Euskal Herrian ontzizigintzarena bezalako sektore bat mantentzea? Nahikoa zigorturik bazegoen lehendik ere, Euskalduna eta antzeko enpresen itxierarekin eta Navalen bertan lanpostuak hainbeste murriztuta. Ezker-raldea bezalako eskualde bat bizirik mantentzea ez da estrategikoa? Bi gobernuak, bai Espainiakoa eta baita EAEkoa ere, erabat inplikatu dira Ezkerraldeko industria desagiteko... Orain beraiei dagokie berehalako irtenbideak aurkitzea; erreskate publikoa, esaterako. Bi asteren buruan horren inguruan erabaki bat hartuko dutela esaten da. Cadizen, Andaluziako hauteskundeak martxan direla, Navantiako langileak lasai daude, interes estrategikoak bihurtu direlako interes elektoral. Hemen bozak urrun samar daude oraindik, eta badakigu... ez dago presarik.



NOTICIEROSTCS.COM

Migratzaileen Karabana AEBetako mugara iritsi da

MEXIKO. Urtero-urtero, miloi erdi inguru migratzailek erabakitzen dute Mexikotik AEBetarako muga zeharkatzea. Amets baten bila joan baino, amesgaiztotik ihesean. Duela hilabete inguru hiru karabane- abiatu zuten martxa, Hondurastik. Lehenengo migratzaileak Tijuana-ko hondartzetan daude jada, hesiaren aurrean. Oso bidaia gogorra izan dute eta batzuk ez dira helmugara iritsi. Donald Trumpek segurtasun indarrak areagotu ditu, eta muga abendura arte itxi du.

Tantaka Telebista Soziala abiatu da

Amaia Lekunberri

@amaialekunberri

Tantaka proiektuaren sortzaileek nabarmendu dute “interes partikularren edo merkatuaren interesen aurrean pertsonak erdigunean jarriko dituen politika” aldarrikatuko dutela. “Nazioarteko elkartasunaren erreferentzia izango da”.

Jatorria

2016an hasi zen egitaratzen egitasmoa, Euskadi-Cuba, Mugarik Gabe eta Paz con Dignidad GKEen elkarlanaren bidez. Hemengo eta hango errealitateei era globalean begiratu behar zaiela sinetsita, bi urteren ostean lortu dute telebista abiatzea.

Elkarlana xede

Herri mugimendu eta borroka askotarikoak elkarerragiten jartze-ko xedea du proiektuak. Hamaika Telebis- tarekin akordioa dute adibidez, eta herri mugimendu eta era- gileei aukera emango diete Tantakarako saio propioak ekoizteko.

Sarean

Sarean emitituko da. Edukiak web orrian jartzen joango dira, eta sare sozialetatik (Twitter, Telegram, Instagram eta Facebook) ere zabalduko dituzte. “Kontrainformazioarako espazio bat izan nahi dugu”, azpimarratu dute bultzatzaileek.

ZERGAK



zentimo garestituko dute gasolio litroa eta 3,9 zentimo gasolina Frantziako Gobernuak erregai fosilei ezarri nahi dizkien zergak. Protesta egin dute Jaka Horiak, baita Ipar Euskal Herrian ere. Salatu dute soldatak igotzen ez diren bitartean, halako neurriak herritarrek, batez ere maila apalenean daudenek, ordainduko dituztela.



HERIOTZAK

86 urterekin hil da Xalbador Garmendia. Idazlea, hizkuntzalaria eta itzultzailea zen, eta arlo horietan lorratz luzea utzitakoa. *Zeruko Argian* aritu zen zuzentzaile. Aitor Sarasua bertsolaria ere hil da, 51 urterekin. Bertso jarri oso ezagunen sortzaile eta ahotsa, bertso irakasle eta sustatzaile aritu zen.



MUGIKORTASUNA

Bizikletan zioan emakume bat hil da Bilbon, kamioi batek zapalduta. Heriotzaren aurrean, bizikletarien segurtasuna aldarrikatzeko mobilizazioak egin dituzte.



KUTXABANK

Kutxabankeko berezorek lau euro ordaindu behar dituzte eskudirutan, beste norbaiten kontu korrontean dirua sartzeagatik. Komisio hau “bidegabea” eta “abusuzkoa” dela ebatzi du epaitegiak, eta kobratzeari uzteko agindu dio Kutxabanki.

AEBak INF itun nuklearretik irtenda, Gerra Hotz usaina berriro European



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Ez du oraindik sinatu baina erabakia iragarrita dauka Donald Trumpek: irismen ertaineko misil nuklearrak debekatzen dituen INF itunetik irtengo dira AEBak. Mundua berriro hurbilago dago, beraz, arma nuklearren kontrolerako lehen hitzarmena sinatu aurreko girotik, zeinetan potentzia bakoitzak ezarri zitzakeen nahi zuen lekuan eta nahi adina. European berriro hasi da entzuten Gerra Hotzaren arotik ahaztua zirudien “armamentu norgehiagoka”. Tamalez, erreakzio gutxi jendartean.

AEBen erabaki alde bakarrekoak inarrosi du mundu osoko diplomazia: Donald Trumpek urriaren 20an iragarri du bere herrialdeak ez duela gehiago ontzat emango Errusiarekin Gerra Hotzaren garaian sinatutako itun garrantzitsu bat, INF ituna, irismen laburreko eta ertaineko lurreko misilak debekatzen dituen ituna. Kezka handia sortu du munduan, ez ziurrenik bere garrantziagatik piztu beharko zukeen adinakoa.

Ingeleseztan eta osorik *Intermediate-Range Nuclear Forces Treaty* deitu akordioa 1987ko abenduaren 8an sinatu zuten Sobietar Batasuneko Mikhail Gorbaxov eta AEBetako Ronald Reagan lehendakariak, bi potentziek urte luzez negoziatu ostean. 1988ko maiatzaren jarria indarrean, tratuak debekatu zituen errusiarrek eta iparramerikarrek orduan zeuzkaten misil guztien arteko sail batekoak, 500dik 5.500 kilometro arteko irismena zeukatenak. Nabardura garrantzitsu batekin: lurretik jaurtitzeko misilak debekatzen zituen, ez ordea itsasontzietatik jaurtitzekoak. Historiak erakutsi duenez, xehetasun hau ez da hutsala suertatu akordioaren garapean.

INF itunak, bomba atomikoak eramateko arma oso arriskutsuak debekatzearekin amaierako mugarria ipini zion 1980ko hamarkadan Europak ezagututako krisi handienetakoari, hiriburu europar nagusiak mehatxatuz Sobietar Batasunak SS-20 misilekin piztu zutenari. Tratu berriarekin, 1991 amaitzerako

2.692 misil desegin zituzten bi aldeek, 846 AEBek, 1.846 Errusiak. Europar Batasunarentzako INF ituna da “Europak segurtasun arloan daukan arkitektura-aren oinarrietakoa”.

Donald Trumpek dio Errusiak ez duela ituna errespetatu. Barack Obama izan zen bere aginte aldiaren urraketa ohartarazi zuena, errusiarrek *Novator M729* misil berriak ezartzean. Ukraina, Donbass eta Krimeako gatazkaren garaian izan zen. Trumpekin AEBen segurtasun aferetan jaun eta jabe den John Bolton antolatutako operazioa yankiek INF bukatutzat eman eta, are urrutiago joanez, 2021n iraungiko den *New Start* misil estrategikoen beste itun nagusiaren bernegoziaketa guztia blokatzeko.

Gaur 87 urte dauzkan Mikhail Gorbaxovek esan omen du –Reagan 2004an hil zen– hutsegitea litzatekeela Washington INFtik ateratzea, horrek errekara emango lukeela berak eta solaskide iparramerikarrek Gerra Hotzaren garaiko “armamentu-norgehiagoka eteteko ahalegina”. Vladimir Putinen ekipotik errepresalia “tekniko-militarrak” iragarri dituzte.

Europako bihotzean, Alemanian, *Der Spiegel* astekariak Trumpen iragarpenean honela aztertu du: “Gerra Hotza berriro? AEB itun nuklearretik irteteak europarrak kezkatzen ditu”. *Der Spiegel*-ek nabarmendu du nola atera duen berriro mahaira *armamentu-norgehiagoka* Alemaniako Atzerri ministro Heiko Maasek, kontzeptua kasik ahanzia baitzen



Gerra Hotza beste inon baino beroago sentitu zuten Alemanian bertan.

INFek bere garaian asko lagundu zuen giroa lasaitzen arma nuklearren arriskuak jende askori loa kentzen zion Alemanian, eta zabalago hartuta Erdialdeko European eta orduko Sobietar Batasunaren eta bere aliatuen mugetako herrialdeetan. Garai hartan eraso atomikoetatik babesteko eraikitako bunker eta gelak dauzkate oraindik orduko etxe eta eraikin askok, Erdiko Europako herrialdeetan militarrek geografia osoan zehar barreiatuta dauzkaten zulo eta aterpe anti-atomikoez gain.

Kontua da 1980ko hamarkadan zientoka milaka herritarrek egin zutela protesta AEBek Alemanian *Pershing II* misil balistikoak kokatzea eragotzi nahian. Aldiz, 2018ko mehatxu berriaren aurrean herritarrek ez dute kasik erreakzionatu inon.

Txina ere sartuta dago jokoan

Zientzialari Atomikoen buletina –Estatu Batuetan editatzen den *Bulletin of the Atomic Scientists* famatua– mundu mailako erreferentzia da gaiotan. INF itunaren krisiaz plazaratu dituen artikuluen artean, Pavel Podvig fisikari errusiarrek –Errusiaren indar nuklearren ikerketa proiektuan aritua denak– “Nork hondatu du INF ituna?” titulatu analisisian onartzen dio: “Egoera honetan kezkarriena da ez dakigula zehazki zer gertatu zen. Urraketaren arrazoia den misil mota izendatzeaz gain, AEBk ez dute



Argazkian, Mikhail Gorbaxov –ezkerrean– eta Ronald Reagan 1987ko abenduaren 8an sinatzen INF akordioa, bi potentziek urte luzez negoziatu ostean. Tratuak debekatu zituen errusiarrek eta iparramerikarrek orduan zeuzkaten misil guztien artean 500dik 5.500 kilometro arteko irismena zeuzkatenak. Ondoko hiru urteetan 2.692 misil desegin zituzten AEBek eta Sobietar Batasunak.

eman balizko urraketa inolako xehe-tasunik”.

Podvigek onartzen du Errusiak urraketa bat egin duela, 2008an garatzen hasitako 9M729 misilarekin, antza denez horrekin 2012an frogak egin eta 2014an amerikarrek Errusiari aurpegiatu zioten ituna urratu izana. “Oso larria izan ote zen urraketa? Guk segurtasunez esan dezakegu INFren debekua hausteko mailaraino ez zirela heldu”.

Antza denez, bi potentziek aspaldi galdu zuten Gorbaxov-Reaganen garaietako konfiantza giroa eta irtenbide bat negoziatzeko modurik ez da izan. “Ondorioz, galtzeko arriskuan gaude armagabetze nuklearrerako akordioen arteko garrantzitsuenetako bat eta behar bada armen kontrolerako prozesu osoa, horren zergatiaren frogarik ikusi gabe”.

Der Spiegel-ek krisi larri honen ekua-

zioan Txina ere aipatu du. Alegia, Txinak ez badu sinatzen INF, yankientzako itunak ez duela zentzurik. “Txina Gerra Hotzaren garaian gaur dena baino askoz ahulagoa zen bai ekonomiaz eta bai militarki. Baina ordutik hona Txina bilakatu da AEBen arerio geopolitikoetako bat. Pentagonoak prestatutako azken “Defentsa Nazionalerako Estrategia”-n Txina aipatzen da AEBen lehiakide estrategikotzat Errusia aipatzen hasi baino lehen”.

Analisi horren arabera, Txinak ez dauka bere estrategia oinarritzerik geografik ematen dion abantailan baizik: lur eremu izugarri zabal baten jabe da eta hori egoera aproposa da ezartzeko lurrian kokatutako irismen ertaineko armak... hain zuzen INF itunaren sinatzaileek debekaturik dauzkatenak. Txinak gaur dauzkan misilen erdiak baino

gehiago suntsitu beharko lituzke Pekin hitzarmenean sartuko balitz. Eta alderantziz, AEBek eskuak libre nahi dituzte misilak jartzeko Japonian.

Pavel Podvigek, nabarmendu ondoren INF ituna posible izan bazen herritarren kezka, protesta eta bultzadagatik izan zela, honela bukatu du bere analisi: “Tamalez, historiak erakusten digu egoerak larriagoa izan beharko duela, ziurrenik askoz larriagoa, jendearen presioak behartu baino lehen liderrak gauzak hobeto egitera. Ez dakigu AEBek eta Errusiak Europar daukaten *enpate nuklearrak* zein beldurgarri izateraino iritsi beharko duen, mundua jabetu dadin jasanezina dela bakea arma nuklearen arriskuan oinarritzea. Soilik gertatzen zait sinestea mundua konturatuko dela berandu baino lehen, beranduegi izan baino lehen”. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



«Bizipenen bidez egin nuen euskararekiko lotura afektiboa»

Txema Aizpurua

Euskaldun berri jantzi ikasia

Gogoeta egina du gure solaskideak, idatziz. "Euskararen erabilera eskasa euskaldun berri baten ikuspuntutik Bilbon", dio. Baikor da, nahiz ezkor jardun duen behin baino gehiagotan elkarriketan zehar, euskaraz bizi nahi eta ezinean.

Testua: Miel A. Elustondo

Argazkiak: Zaldi Ero

Nondik sortu da zure gogoeta?

Mintzanet egitasmoan ari naiz, eta as-
tean behin bi lagunekin biltzen naiz. As-
teartero, Baranbion bizi den neska ba-
tekin. Asteazkenero, Algortan bizi den
gizonezko batekin. Iaz, foro bat sortu
zuten Mintzaneten, gure iritziak plaza-
ratzeko eta beste. Baina foroak ez zuen
harrera berorik izan, eta orduan, zer
edo zer idazteko eskatu zidaten egitas-
moaren arduradunek. Baina ordurako
gogoeta egina nuen nik, eta nire kolko-
koak paperean jarri besterik ez nuen
egin behar izan. Gogoeta eginagatik, or-
dea, erantzunik ez dut kasik batere izan.

Euskararen erabilera eskasaz ari zara zure gogoetan.

Bai, oso eskasa, erabilera Bilbon. Donos-
tiarrak gara senar-emazteok, baina Bil-
bora bizitzera etorri ginen 1997an, lan
kontuengatik. Eta, hain zuzen, hemen

hasi nintzen seriotasunez euskara ikas-
ten, 2003an. Handik bi urtera, EGA atera
nuen. Hala ere, euskara erabiltzeko au-
kerarik ez nuen lanean. Gero, gaitzak jo
ninduen, eta lanerako gai ez nintzenez,
tarte handiagoa izan nuen euskarari es-
kaintzeko.

"Euskaldun berri" definitu duzu zeure bu- rura, zure gogoeta idatzizkoaren goibu- ruan.

Kalean bolo-bolo dabil izen hori, "eus-
kaldun berri", eta neuretzat hartu dut.
Baina ez dakit noiz arte izango naizen
euskaldun berri. 55 urte betetzeko, oso
berri ezin izan! Kar, kar... Euskaldun ika-
sia, bestela. Baina hori ere ez da oso
erabatekoa. "Euskara ikasitakoa", esan
beharko nuke. Alegia, ez zidan amak ira-
katsi, ez nuen etxean jaso. Euskaldun
berri... On Kixote moduko bat, edo Ere-
muko Simon bat.

Txema Aizpurua Etxaniz

Donostia, 1964

Ingeniaritza ikasketak egina.
Gorabeheraz betea du euskararekiko
bidea. Donostian hasi zen euskara
ikasten, Bilbon eman dio errematea,
2003an, euskaltegira itzulita. 2013an
minbiziak jo zuen, eta lanerako
ezindua, euskal kulturaren munduan
murgildu zen. Berbalagun eta
Mintzaneteko kide, ARGIA, *Berria*, eta
Jakin jasotzen ditu etxean, irakurle
klub bateko partaide... euskaraz bizi
nahiz bizi da, eguneroko bizimodukoak
ez diren bestelako bideetan, euskara
erabili nahiz. On Kixote bat, Eremuko
Simon bat, Txema Aizpurua.





Euskalduna bere bakardadean, zu.

Irakurle klub bateko kide naiz, foru liburutegiak antolatua da, Julen Gabiria gidari dugula. Oraindik orain, Clarice Lispector-en *Zorion klandestino*a irakurri dugu. Ez nuen idazle hori ezagutzen, eta estimatu nion Juleni haren liburua aukeratu izana. Lispectorrek dio ez duela arrazoimenean sinesten, animalien bizitza miresten duela dio, animalietan buru-arimek bat egiten dutela. Aldiz, gizakiok urteen poderioz hainbat maskara eta estalki asmatzen ditugula, gure burua ezkutatzeko, batetik, eta bestetik, berriz, gizarteak nahi gaituen moduan azaltzearen: estalki bat erabiltzen dugu lanean, beste bat etxean, hirugarren bat kaleko lagunartean. Alde horretatik, gaitotasunak erakutsi dit barruko izaera, benetakoa, erakutsi beharra dagoela zoriontsu izan ahal izateko. Ez dago beste bizipozik. Estalkiekin baldin bagabiltza, gure barrua bigarren planoan geratuko da, ezin aterata. Etsigarria da.

Etsigarria zaizu euskararen erabilera eskasa?

Guztiz etsigarria. Euskaldun izan ahal izateko lan egiten dut, gustura, baina ondokoarekin komunikatzeko da hizkuntza, harremanetarakoa, eta Bilbon aukera gutxi ditugu. Kalera irten eta nekez entzungo duzu euskararik. Beharbada, jolas-parkean, gurasoak euskaraz

ariko dira beren haurrekin, eta gainerakoan, euskaraz ariko dira zenbait puntu jakinetan, dela Kafe Antzokian, dela Parte zaharrean AEKren euskaltegiaren inguruan, Somera kaleko Bira elkartearen, Arriaga antzokiko euskarazko bazterreko ekitaldietan... Gune jakinak dira. Zer edo zer da, ezin da ukatu. Horiei esker bizi gara, edo bizi ahal dugu, euskaraz.

Euskaltegiak hor dira, ikasle gehienak ere bai, D ereduaren gehienak, baina eremu guztiz erdaldunduan direnez, harako gure oroitzapenak bezala dabiltza...

Egiten dugun lanak ez dakar ekarri beharko lukeen emaitzarik. Ezta pentsatu ere. Esango nuke, askotan lan horiek guztiek kontrako efektua ere eragiten dutela. Ez dakit, esate baterako, euskara behartuta ikasten dutenek ez ote diren, neurri batean, euskara gorrotatzera iristen. Gorrotatzera, edo ezinikusia izatera. Hainbeste oposizio, perfil, berridazketa eta bestelako. Lan nekea da, batere ez erakargarria. Maite ez baduzu, kontrako efektua lortzen da. Eta, gainera, ikaste prozesua amaitu eta gero, erabiltzeko aukerarik ez baduzu, akabo! Zaila da egoera. Euskara tresna huts gisa ikusten badugu, ez du balio, ez dugu ezer egingo, hor dugu-eta beti gaztelania, guztion artean komunikatzeko. Euskara erabiltzeko, berriz, beharrezkoa da lotura afektiboa, halako gogo bat, halako

bultzada bat. Zergatik hautatzen dugu euskara, euskara hautatzen dugunok? Maite dugulako! Maitasunari lotua dago. Izan liteke militantzia, izan liteke lagunarte giroa... baina nahitaezkoa da lotura afektibo hori. Euskara etxean jaso baduzu, hor duzu lotura, amarekiko nahiz gurasoekikoa. Bilbo honetan, gutxi dira euskara amarengandik jaso dutenak.

Euskal kulturaren ezagutza sakontzeko proposamena ere egin duzu zure gogoean.

Bai, bada. Hizkuntzarekin batera, historia, kultura, zinema, kirolak, jolasak, literatura... erakustea. Izan ere, hizkuntzari zerk ematen dio garrantzia? Zerk ematen dio prestigioa? Hizkuntza horretan produzitzen denak. Alemanez ikasiko bagenu, Goethe, Kant edo Hegel zein izan ziren eta zer idatzi zuten jakingo ez banu, oso gauza eskasa litzateke. Axolagabekeria handia litzateke frantsesez ikastea eta Truffaut, Jacques Brel, Edith Piaf eta gainerako autoreen lana ez ezagutzea. Sortzaile horiek egin duten lana ezagutuz gero, hizkuntza horretan datorren kultura maitatzera irits naiteke, eta horrela askoz ere erakargarriagoa da hizkuntzak ikastea.

Horixe egin beharko litzateke euskararen kasuan, zure ustez.

Jakina. Lotura afektiboak bilatu behar dira, gurasoek erakutsi ez dizuten hizkuntza erabili ahal izateko. Horrelakorik ez bada, kanpoko eragileak beharko dira, euskaraz dakigunok euskaraz hitz egiteko. Bilbon, ordea, kanpoko eragileek, kaleko giroak eta bestelakoek ez zaituzte bultzatzen euskaraz hitz egitera, guztiz kontrakora baizik, euskara ez erabiltzera. Euskara erabiltzeak arazoak ekartzen dizkizu Bilbon. Inoiz, borrokalari jaikiz gero, zeure buruari esan diezaiokezu: "Gaur euskaraz hitz egingo dut!". Kalera irten, dendara joan eta hasi zaitezke euskaraz eskatzen, baina jaso duzun erantzuna oso ezkorra izango da askotan. "Zer ari da hau, ordea!". Euskal Herrian gaude, baina Madrilen egongo bagina bezala. Azkenean, oso ezatsegina da.

Semeekin hitz egin omen duzu gurekin aritu baino lehen.

Galdetu nien zergatik ez zuten euskara erabiltzen. Errieta gabe, beti. Zu zentozela esan nien, eta haien egia jakin nahi

Kafe Antzokia

“Bilboko leku euskaldunetako bat da Kafe Antzokia. Han inguruan bai, entzuten da euskara, baina baita gaztelania ere. Asko, gainera. Ostiral eta larunbat gauetan, gehiago entzuten da gaztelania, euskara baino. Nik esatera, gehienbat bertako euskaltegiko irakasle-ikasleek erabiltzen dute”.

Euskara, betebeharrak

“15 urte nituela, gurasoek euskara akademia batera bultzatu ninduten. Betebehartzat hartu nuen euskaraz ikasi beharra. Gogoz kontra joaten hasi nintzen, harik eta joateari utzi nion arte”.



nuela, alegia, ni haiekin euskaraz hitz egiten saiatzen nintzenean ere, gaztelaniaz erantzuten zidatela. Haiek batere zalantzarik gabe erantzun zidaten, eta iritzi bera zuten bi semeek ere: “Erosoago delako”. Kanean gaztelania dela nagusi esan zidaten, eta bestalde, ez zutela euskaraz hitz egiteko behar besteko trebetasunik, kosta egiten zitzaizela, eta egokieran, gaztelaniara jotzen dutela. Neurri batean, ulertzekoa da haien jarrrera, gauzak ahalik eta modurik errazenean egiteko joera baitu gizakiak. Emazteak eta biok ere gaztelaniaz ari ginela ezagutu genuen elkar, eta gaur egun, nire temaren ondorioz, saiatzen gara batzuetan euskaraz hitz egiten.

Gizarteak antolatu egin behar duela idatziz duzu zure gogoetan.

Bai, komunitateak sortu. Azken inkesta soziolinguistikoaren arabera, euskararen ezagutza maila handia da Bilbon. Erabilera, berriz, hutsaren hurrena. Bilboko euskaldunok oso sakabanatuta gaude, loturarik ez dugu. Gizartearen isla gara horretan, nor bere zuloan sartuta bizi gara, interneti katigatuta. Eta, horrela, erraztasun handiagoa dugu AEBetan bizi den batekin hitz egiteko, Bermeon bizi den batekin baino. Hori-

xe da gure bizimodua. Horregatik diot benetazko komunitateak sortu beharko genituzkeela, eta horretarako aitzakia ezin hobea iruditzen zait euskara. Komunitateak izan litezke fisikoak nahiz birtualak, baina harreman fisikoak ezinbestekoa da, nire ustez, hurbiltasun fisikoak nahitaezkoa baita enpatiarik sortuko bada. Harreman fisikoak sendotuz gero, era birtualean eman lekiok jarraipena, skype, whatsapp edo dena delakoaren bidez.

Bateko eta besteko euskalkiak hitz egiten diren guneeetan egonaldiak egitea proposatzen duzu. Eta ez zara lehena.

Egonaldi luzeak, tokian tokiko euskalkiak ulertzeko, eta benetan euskaldun bizi garela, bizi gaitezkeela, sentitu ahal izateko. Zaila da ulertzea, baina hemen-dik hoge minutura Bermeora joan, edo Ondarroara, edo Ipar Euskal Herrira, eta ahaleginak eta bi egin behar izaten ditugu bertakoei euskaraz ulertzeko. Euskalkiak arautu egin behar direla diote, esaten du Koldo Zuazok, adibidez, eta ados nago. Baina, bestalde, zer esan nahi dugu, euskaldun osokoak izateko euskalki guztiak ikasi behar ditugula? Eta, horrez gainera, hitanoa? Eta bailara bakoitzeko berezko esapideak? Gogoan

dut emakume bat, Lasturkoa [Debako auzoa], euskaraz ikasi behar genuela esaten ziguna. Ikasi genuen noizbait, eta emakume harekin euskaraz hasi orduko, gaztelaniara jotzen zuen berak!

Hara, bestea!

Bai, bada! Hark bere euskara hitz egiten zuen, ez zen eskolatua, gure euskara batua, batzuetan perfektua eta bestetan ez hain perfektua, arrotza zitzaion. Eta mendira noala, tontorrera igotzeko bideari buruz euskaraz galdetu, eta gaztelaniaz erantzuten didate. Euskalki arraroren bat hitz egiten dudala pentsatzen dute, nonbait. Ez dakit, bada, baina euskaldun berri guztioi gertatu zaigula horrelakorik esango nuke. Kontzientzia hartu behar dugu, egoera horretan gaudela kontziente izan, arnasguneetan bizi direnek haietatik kanpo bizi garenoi harrera hobea egin diezaguten. Azken finean, ahaleginak egiten ari garenoi erraztasunak ematea litzateke kontua, besterik ez. Euskaraldian bezala.

Euskaraldian?

Zer egin behar du, bada, Belarriprestak? Ahobizi denari erraztasunak eman, euskaraz hitz egin dezan. Espero dezagun apurka-apurka egoera aldatzea.

Espero. Zer espero duzu Euskaralditik?

Gauza gutxi... Baikorra naiz, izatez, eta ez nuke honetan ezkor azaldu nahi. Espero dut kanpaina eraginkorra izatea, baina gaurko egoera kontuan, ez dakit oso urrun iritsiko ote garen. Badakigu ezagutza zabalduta dagoela, badakigu ez dugula gure arteko harremanetan euskaraz hitz egiteko ohiturarik, eta gainera, badakigu ez dugula euskal kulturaren gaineko berririk. Orduan, hitz egiten hasita ere, zertaz hitz egin behar dugu? Mamirik gabeko elkarrizketak egin behar ote ditugu, bada? Horixe da nire kezka.

Euskaldun berria zu, Txema, nola iritsi zinen euskararen mundura?

Txikitan ez nuen euskararik jaso etxean. Hala ere, gogoratzen naiz, ama bisitan joaten zitzaion amonari, Zarautzera. Mintzaira arrotz batean mintzatzaren ziren, ez nuen tutik ulertzen. Handik urte batzuetara, eskolan, frantses irakasleak -Etxeberri, Iparraldekoa-, zuzendu egin zidan deitura. Azterketan, ohi nuenez idatzi nuen nire izena: "Jesus Mari Aizpurua Echaniz". Itzu-

li zidanean, deitura ere zuzendua zidan: "Etxaniz", jarri zidan. "Zer da hau, ordea?". Eta xehetasun hori, eta amak amonarekin ibiltzen zuen hizkera hura lotu, eta asmatu nuen: "Euskara da!". Handik laster hasi ziren manifestazioak, batzarrak, poliziaren aurrean lasterka ibili beharra... Nerabezaro be-

Azken hitza:**Mendiak eta Herriak**

"Emaztearen eraginez, mendi ibilaldiak egiten hasi ginen Mendiak eta Herriak-ekin. Han ziren Felipe Uriarte, Xabier Erro, Martin Zabaleta! Nire heroiak, garai hartan. Euskaldunak ziren, gainera. Ahal nuen moduan egiten nuen haiekin euskaraz, eta okerrak egin arren, berdin onartzen zuten nire euskara. Handik lasterrera, Lesakako barnetegira joan nintzen".

tean harrapatu ninduen mugimenduak, eta militantzia piztu zen nire barruan, eta bizipenen bidez euskararekiko lotura afektiboa egin nuen.

Lehen ere horixe esan duzu, lotura afektiboa.

Begira, gogoratzen naiz, txikitan, Donostiako estropadetan ginela. Jokatu zen estropada, eta hiriko bandera eman zioten irabazleari. Aldi berean, baten batek ikurrina zabaldu zuen, eta *Eusko gudariak* abesten hasi zen jendea. Eta, orduan, gure aitaren aldeko amona negarrez hasi zen. Eta ni, harrituta. Gero, amona hura euskalduna zela jakin nuen, nahiz eta nik bizian ez nion euskaraz hitzik entzun. Donostiara etorritakoa zen, baina lotsagatik, debekuagatik edo dena delakoagatik, galdu edo ezkutatu egin zuten euskara, beren mintzairak hirian bizitzeko ez zuela balio ikusi zuten. Horrelako bizipenek euskararekiko lotura afektiboa egiten laguntzen dute. Gaur egun, ez dago era horretako lotura afektiborik. Maitasun kontua da euskara. Maite ez baduzu, ez dauka zentzurik, ez du merezi. ■

ZIENTZIA bizitzeko

elhuyar
GOIENKALE 87

5 €

2019a TAULA PERIODIKOAREN NAZIOARTEKO URTEA

ELEMENTUEN TAULA PERIODIKOA
2018an berritua
elhuyar.eus/denda

HIZTEGIak GUZTIENTZAT
elhuyar.eus/denda

gozatu!

ELHUYAR ALDIZKARIA
aldizkaria.elhuyar.eus

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA
SARIA 2018
MUGARRIETAKO BAT

20 €

ZIENTZIAKO ESPERIMENTSU-LIBURUAK
4-10 urteko neska-mutikoek zientziak gozatzeko!

Euskal Kellyak

MTV *music week*-eko asteburuan abiatu zuten protestaldia eta greba mugagabea dau-de Bilboko NH eta Barceló Nervi3n Hoteletako garbitasun zerbitzuetako langileak. Musika sarien asteburuan Barcel3 Nervi3n hotelean gaueko prezioa 375 eurora igo den bitartean garbitzaileek gelako 2,5 kobratzen jarraitzen dute. Luxuaren atzean ezkutatzen den miseria honek sistemaren kontraesanak diruditen arren, sistemaren beraren egiturazko esplotazio mekanismoak dira.

Pankarta eta txilibitua eskuan emakume ugari ikusten da, gizonak ere badaude eta jatorri anitzetako pertsonak sumatzen dira. Den-denak dira garbitzaile: prekarizatuta, feminizatuta eta razializatuta dagoen sektorean dihardute esklabotzatik asko duen baldintzatan. Ez da kasualitatea, haien artean Europatik kanpo etorritako pertsona migratuen presentzia maila handia izatea. Honek derrigortu egiten gaitu aztertzeraz zein erlazio zuzen dagoen esklabotasun egoerako lan baldintza, jatorria eta feminizatuta dagoen sektorearen artean. Hala, Angela Davisek *Emakumeak, arraza eta klasea* liburuan aldarrikatzen du korapilatu-ta dauden elementuak direla. Generoa, arraza eta klasea protestan ari dira hoteleko atarian. Teoria gogorra egiten da, praxia are gogorragoa.

Garbitzaileak ELA sindikatuaren baitan antolatu dira eta bere babesaz jo dute grebara. *Outsourcing* fenomenoaren bidez, Barcel3 Nervi3n eta NH hotelek garbitasun zerbitzua Constant-i azpikontratatu diote. Geroz eta hedatuago dagoen outsourcinga, bereziki zabalduta dago ostalari-tza sektorean. Constant erraldoiak sektore anitzetan diharduen arren,



Aiala Elorrieta Agirre

EKONOMIALARIA
@aialuski

Pankarta eta txilibitua eskuan emakume ugari ikusten da, gizonak ere badaude eta jatorri anitzetako pertsonak sumatzen dira. Den-denak dira garbitzaile: prekarizatuta, feminizatuta eta razializatuta dagoen sektorean dihardute esklabotzatik asko duen baldintzatan

gehienbat ostalaritzan ditu atzaparrak sartuta. Sektore horretan ezaguna da langileei dagokien Ostalaritza Hitzarmena aplikatu ordez, enpresa hitzarmen propioa aplikatzen dielako: 800 eurora iristen ez diren soldatak, emakumeei garbitzen den gelako 2,5 eurotik behera ordaintzea. Horrexe-

gatik ari dira greban bi hoteletako garbitzaileak, Bizkaiko Ostalaritzako hitzarmena aplika dakien. Horrekin, batera, gehiegizkoak diren lan kargak murriztea eta lan kontratuak egonkortzea ere eskatzen dute behin-behinekotasuna nagusi den munduan.

Joan den uztailen Bizkaiko Ostalaritza akordioa sinatu zuten ELA, UGT eta CCOO sindikatuek. Hiru urteko iraunaldia duen hitzarmenak, outsourcingaren ondorio kaltegarriak mugatu eta subrogazioa bermatzen du. Testu aitzindaria izan da ostalaritzako azpikontrataturiko eremu guztietarako. Akordioari esker esternalizaturiko lanetan legez ezingo dira lan-baldintza prekarioak ezarri eta sektorean diharduten guztiei aplikatu zaie, nahiz eta azpikontrataturiko eremua izan. Gainera, langileek subrogazio-eskubidea ere izango dute. Hau da, azpikontrataturiko enpresa aldatzen bada, langileek haien enplegua mantentzen dute.

MTVko sarien asteburuan, hotelean apopilo zirenen artean belarrietarako tapoiak banatu zituzten Barcel3 Nervi3n Hotelean, gazteleraz eta ingelesez idatzitako barkamen-oharrarekin batera: *Eragozpenak barkatzeko, We apologize for the inconvenience*. Turistak jakingo du tapoiak zertarako erabili eta epaituko du grebalariak eta greba inkonbenientzia diren ala ez. Baina asko gara argi daukagunak nortzuk diren oztopo.

Zorionez hedatuz doaz outsourcingari aurre egiteko antolatzen diren langileak eta asteotan Constanteko langileak kalean egote hutsa, garai-pen ikaragarria da eta erreferente indartsuak bilakatzen ari dira. Euskal Herrian lanean ari diren gela garbitzaileak dira, *euskal kellyak*. ■

Nahi izan ala ez izan

Batek nahi ez duenean, eta besteak bai, bi aukera daude: nahi ez duenaren nahiak agintzea, edo nahi duenarenak. Bi aukeren arteko muga argia da, eta bortxaketa paratzen du bigarren aukeraren aldean. Hori horrela kokatzea, historikoki begiratuta, ez da berezkoa. Denok ez gaude oraindik hor. Baina esango nuke horrantz mugitzen ari direla, astiro-astiro, eskema mentalak.

Eskema horrek talka egiten du beste errealitate batekin: ezin da frogatu adostasuna egon den edo ez, eta, egon ez bada, biek ote zekiten. Ez bagara hasten hori dena kontratu idatziz finkatzen. Eta ez dakit halakorik nahi dugun. Nik neuk, ez. Nahiko nuke ezetzak ulertzea eta errespetatzea. Baina egia da, hala ez denean, konplikatu egiten dela kontua, dezente. Nola frogatu ezetz esan duzula, ezetz argia gainera, besteak ulertzeko modukoa, besteak *ulertu* duena. Hori frogatzen hasi nahi ahal dugun. Horretaz hitz egiten hasi nahi dugun. Norekin hitz egin ahal dugun. Agian, baten batek nahiago du esan “hemen ez da ezer gertatu, dena ondo”.


Pantaila handian ikusitako halako istorio bat katigatuta geratu zait buruan. *Dena* ondo, dio tituluak. Baina eskolako gelakoen topaketa baten ondoren –festaren, alkoholaren, barreen, dantzen, flirt bihurrien ondoren– emakumeak ez du nahi, eta gizonak bai. Emakumeak bromatan hartu du hasieran gizonaren hurbilketa sexuala. Gero ezetz esan dio irmoki. Eta hark ezetza ozartzen ez duela konturatu denean, ezin du sinistu. “Benetan?”, galdetu dio. Eta errenditu egin da nolabait. Baina gizonak badaiki. Brageta jaitsi, haren barruan sartu eta hazia isuri bitartean, badaki besteak ez duela nahi. Umiliazio handiko eszena da. Astindu egiten du.

Eta gero? Biharamunean? Hurrengo egunetan? Nori kontatu? Zer kontatu?



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

Nola kontatu? Ez dio garrantzirik eman nahi. Sexu txarra pare bat minutuz (ez dira gehiago izan). Iraina baino indartsuago izan, hura joko zelaitik kanpo utzi. Erreprimitu egiten du. Ez du bere burua biktima gisa ikusi nahi. Ez du poliziarengana jotzen. Ez du errebelatu nahi. Ez du errukirik nahi. Ez gaitzespenik. Bortxaketa hitza ez da aipatzen. Baina horixe da gertatu dena.

Gertatu dena ikusi ez duen inortxok ez luke gizona munstroztat joko. Gizon horrek ez lituzke *La Manada*-koen estiloko whatsappak idatziko. Ez da guardia zibila. Ez eta albornoak luzitzen dituen botere handiko gizon ukiezina ere. Argitaletxe batean lan egiten du.

Filma bukatzean pentsatu nuen: askotan gertatuko dira halakoak. Ezaguna izatea bestea, bizitakoa ez lotzea bortxaketa hitzarekin. Eta ez soilik beste garai batekoei, iskanbilarik nahi ez duten emakume ahulei. Horixe bera zioen duela gutxi Germaine Greer feminista polemikoak: oso ohikoa dela adostu gabeko sexua, egunerokoan kokatua dagoela. *On Rape* liburua argitaratu baino lehenagoko hitzaldi batean esan zuen bortxaketa sarritan, ikaragarritzko biolentziadun ekintza izan beharrean, ekintza zabarra, axolagabea, sentiberatasun gabekoa izan ohi dela. Bortxaketa hutsaltzea egotzi zioten batzuek. Agian ez zuen jakin ñabardurak egiten, erabilitako hitzekin edo testuinguruarekin asmatzen. Interesgarria iruditzen zait, hutsala irudi dezakeen eta marka fisikorik uzten ez duen bortxaketak sortzen duen kaltean ere fokua jartzea.

Greerek proposatzen du bortxaketak zigortzeko sententziak murriztea frogamaila baxuagoaren trukean. Eztabaida zabaltzen du. Bortxaketa desmitifikatetik urrun, komeni da esatea: egunerokotasunean ere gauza grabeak gertatzen dira, inon agertzen ez direnak. Hitz egin dezagun horietaz ere. ■

Hezkuntzaren oinarri erdaldunak



Mikel Basabe
Kortabarria
IRAKASLEA

Jaurларitzak *Hezkuntzaren aldeko akordioa, akordioaren oinarriak* agiria aurkeztu berri du Legebiltzarrean. Oinarri horietatik abiatuta gura du, legealdi honetan, Hezkuntza Lege berria onartu.

Agiria irakurrita, lehenengo kolpea berehalakoa da: Jaurларitzak gaztelaniaz pentsatu ditu etorkizuneko hezkuntzaren oinarriak. 2018an, Hezkuntza Sailean, gaztelaniaz lan egin eta, ondoren –halamoduzko– itzulpena argitaratu dute euskaraz ere bai.

Bigarren kolpea hizkuntzei eskainitako atalak ematen du: hain da ahula! Pentsa: Jaurларitzak diosku 2016-17an 16 urte bitarteko ikasleen %95ek D eta B ereduetan ikasi duela EAEn. Era berean dio 20 urteren buruan gazteen %90 elebiduna izango ei dela, nahiz eta horietako gehienak ondoen gaztelaniaz moldatuko diren. Non dago, orduan, D eta B ereduak bertan behera uzteko premia? Are gehiago, Jaurларitzak dioskunean emaitzek erakusten dutela, gaur egun “hizkuntzak ez direla ondo ikasten”. Eta arazo hori gainditzeko hainbat neurri proposatzen ditu:

- Irakaskuntza-metodologia aldatzea, ikuspegi komunikatiboa izan dadin ardatza.
- “Ahozkoari behar besteko arreta ipintzea”.
- Ikasgai guztiek izan dezatela komunikazio-gaitasuna lantzeko helburua.
- Premia duten irakasleei laguntza ematea, “C1+ maila eta bereziki ahozkoan abilezia bikaina lortu dezaten”.

– Administrazioak baliabideak ematea hizkuntza-planak eraginkorrak izan daitezzen.

– Hizkuntzen planifikazioa bateratua izatea, eta hizkuntza guztietako irakasleek lan-taldean jardutea.

– “Hezkuntza sistemara sartuko diren irakasle berrien profila” zehaztea.

Galdera berez-berez sortzen da: orain artekoa hankaz gora ipini aurretik, zergatik ez dira neurri horiek guztiak orain hartzen? Errazagoa izango da, ba, zuzenean ereduak baztertzea jo beharrean, hobekuntza neurriok berehala aplikatzea ikasle guztien %95 hartzen duten D eta B ereduetan, 3L ez baita, kasurik gehienetan, B eredu baina hobea izango: aldatu euskara eta ingelesa irakasteko metodologiak, eman ahozkoari behar duen garrantzia, hobetu irakasleen euskara-maila (eta egin oposizioetan derrigorrezko euskara-azterketa), eman behar beste baliabide eta zehaztu ikastetxeen hizkuntza proiektuek eremu sozio-linguistikoko bakoitzean izan beharreko ezaugarri minimoak... egin hori guztia eta ikusi, epe baten buruan, ikasleen euskara-maila hobetzeko balio duen ala ez.

Bestela eginez gero, 3Lra paperean baino ez dauden oinarriekin abiatuz gero, benetako arriskua baita: hurrengo hamarkadetan hezkuntza-sistemak ahozkoari barik batez ere belarriprestak trebatuko ditu. ■

Gorria, laranja, berdea, semea



Edu Zelaieta Anta
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Gorria: emakume bat lore sorta bati ari zaio solasean. Ez da hura ikusten duzuen lehen aldia, ez leku berean, ez modu berean. Gaurkoan ere, orain arte ikusi duzuen aurreko aldietan bezalaxe, bakarrik dago. Lore sorta ikusgarria hiriko auzo berri bateko etorbide –bulebar– zabal batean berritzen da, gutxi gorabehera kalkulatu duzunez, bizpahiru hiletik behin. Oraintxe gorria dagoen semaforotik 8-10 metro ingurura.

Laranja: Gasteizko Alde Zaharretik Salburura bizitzera etorri zinetenean, ordurako gurasotuak, ez zegoen semaforo hori. Auzokideen elkar-teak administrazioari eskatua zion behin baino

gehiagotan neurriak hartzeko: zebra-bideak ez ziren errespetatuak izaten, eta etorbide zabalean ziztuan joaten ziren autoak. Garai hartan ez zegoen semaforo hori bera ba omen zen auzotarren eskaeretakoa bat.

Berdea: azkenean, alabaina, heriotzak landatu zuen semaforoa. Istripuaren egun tamalgarria gogoan duzu oraindik. Bolo-bolo zabaldutako ezbeharraren berria, artean (zuentzat bederen) sare sozialak ordenagailuko kontuak ziren denboran.

Semea: galdera bat, aita: “Zer ari da emakume hori lore sorta bati solasean?”. ■

Aita Santua izan nahi zuen beratarra

Paperezko egunkaritik gehiena dut gustuko, eskelen errepaso azkarra barne. Duela gutxi, Josu Goiarena ikusi nuen bi egunkaritan, eta haren oroimenezko idazkia bietan. Lander Santamariak *Diario de Noticias*-en sinatuak honako izenburua zuen: "Josu Goia, uno de Bera que quería ser Papa". (Josu Goia, aita santua izan nahi zuen beratarra).

Kazetari elizondarrak zioenez, Goiari txikitan piztu zitzaion aita santua izateko *bokazioa*. Argaya apezpiku beratarra herrian ezagutzean, hura hainbesterako ere ez zela pentsatu eta gorago jotzea erabaki zuen, sotanadun batek lor dezakeen mailarik gorena amets. Horretarako, jakina, Iruñeko seminarioan hasi beharra zegoen. Apezgai aritu zen garaian, teologia eta filosofiaz gain, pianoa, txistua eta gitarra jotzen ere ikasi zuen.

Erromako elizako burua izateko grina ahantzirik, hogeita bi urtetan Berara bueltatzea erabaki zuen. Geroztik, sorterrian herrigintza kontzeptuarekin laburbil daitezkeen hamaika saltsatan aritu zen: koruko zuzendari, txistulari, dantzari, elizako organista, musika eskolaren sortzaile, ikastola eta gau eskolaren bultzatzaile,



Fermin Erbiti

KAZETARIA

Erromako elizako burua izateko grina ahantzirik, hogeita bi urtetan Berara bueltatzea erabaki zuen. Geroztik, sorterrian herrigintza kontzeptuarekin laburbil daitezkeen hamaika saltsatan aritu zen

le, Olentzero eta inauterien susper-tzaile, herriko suhiltzaile boluntario, alkate, zinegotzi, parlamentari... Eskultura lanen bat ere utzi du herriko karriketan, eta Guardia Zibilarekin izaniko liskarren testigantza idatzia liburu batean.

Santamariaren idazkia irakurtzean, gure herrietan auzolanean nabarmendu diren beste gizon-emakume batzuk gogoratu nituen. Duela hiru urte, herriz-herri ibili nintzen, Nafarroako ikastolen 50. urteurreneko liburua idazteko elkarrizketak eginez. Egia esan, pagotxa izan zen Ikastolen Elkartearen enkargua. Izan ere, horri esker han eta hemen hamaika istorio interesgarri eta beste hainbeste gizon-emakume konprometitu ezagutu nituen: euskaltzale sutsuak, auzolanean zailduak, ameslariak, haize zakarrak nekez kikiltzen dituen horietakoak. Ikastolak martxan jarri ondoren, horietako askok lehen udal demokratikoetan parte hartu zuten, beratarrak egin zuen bezala.

Gisa horretako herritarren meritua aldarrikatu eta hortik guztiok irabazi duguna azpimarratu behar dela iruditzen zait. Herrian bizitzeaz gain, herria bizi duten gizon-emakume horiek asko ematen digutelako; *saltsero* bezain eskuzabalak izanik, era askotako lanak egiten dituztelako, musu truk gehienetan. Horien artean bazen bat, ahalegin guztiak herriari eskaintzeko aita santua izateari ere uko egin ziona: berriki hildako Josu Goia beratarra. ■



Alberdi

EUSKAL ARTISAUTZA

OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK

ESKAERAK

azoka.argia.eus

☎ 943 371 545



DERRIGORREZKO SOLDADUTZA INDARREZ BERRIZ ERE



Frantziak munduaren jendarme izan nahi du, NATOko beste estatuekin batera. Herrialde batzuetako baliabide naturalak ustiatuz, kolonizazioaren ondorioetan sakonduz, bere egiteko historikoa atxiki nahi du. Gerra inperialistak sekulako negozioak dira. Frantziak Zerbitzu Nazional Unibertsala (SNU frantzesezko sigletan) jarriko du abian 2019 urtean. Ipar Euskal Herriko gazteria ez da geldirik horregatik. Aitzina gazte mugimenduaren jarduera lekuko.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Frantziako Estatuan 2001ean desagertu zen derrigorrezko soldadutza. Harrezkero, gazteak, neskak nahiz mutilak, lizeo garaian, egun bateko zerbitzua betetzen dute. JDC deitu eguna (*Journée défense et citoyenneté*—Defentsa eta herritartasunaren eguna). Egundik parte hartu behar dute nahitaez. Alabaina, 2019ko urtarrilaz geroztik, Frantziako Gobernuak SNU (*Service National Universel*—Zerbitzu Nazional Unibertsala) delakoa indarrean jarriko du.

15 eta 18 urte arteko gazteek barne-tegi-zerbitzu bat egin beharko dute derrigor. Hasteko, hamabost eguneko ikas-

taro bat bete beharko dute, eta ondoren, beste hamabost egunez, arlo zibikoan eta militarrean prestatzeko “engaitu”. Hilabeteko aldi horren ostean, hiru hilabeteko jarraipena egitera behartu ahalko dituzte gazteak. Oraingoan, solas-lekuetan diotenez, “boluntarioa” izan liteke.

Gobernuarekin kritiko diren hainbat sektorek proiektuaren megalomania salatzen dute. Derrigorrezko soldadutzaren zerbitzua egokia denentz sakon aztertu gabe, zerbitzua ezartzeko presa eta era ezbaian jarri dituzte. 800.000 ikasle ari dira lizeoetan uneon. Gobernuak, lizeotako barne-tegiak erabili nahi ditu ikastaroak antolatzeko. Une honetan 230.000 toki baino ez daude prest gazteak hartzeko.

Autoritarismoa barne-tegietan

Gobernuaren egitasmoaren arabera, SNU zerbitzuak “Errepublikaren balore klasikoak berreskuratzeko” balio behar du. Gazteen iletrismoa detektatzeko ikastaro gisa aurkeztu du ekimena, baita hauen osasunaren bilana edo balantzea egiteko ere. Erran gabe doa, egitasmoak “nazioaren defentsa erronkarekin sentibiltzatzea” dauka xede.

Frantziako Legebiltzarrean Emmanuel Macronen Gobernuaren lehen *Lurraldearen Ituna* aurkeztu zen egunean, Édouard Philippe Lehen ministroak hitz hauek erabili zituen SNUren funtsa azaltzeko: “Izanaren gainean lan egin behar dugu, egitearen gainean ongi ariko bagara”. Hitz hutsalak inondik ere. Diskurtsoan erran zuenez, lizeo garaira iritsi orduko, hama-

“EUSKAL GAZTEOI EZ DIZKIGUTE EUREN BALOREAK SINETSARAZIKO”

Frantziako Gobernuak soldadutza zerbitzua ezarri nahi du berriz ere. Aitzina mugimendua adi-adi dago.

Bistan da. Presidente denetik, Emmanuel Macron segurtasun ordena bermatzeko ahaleginean ikusi dugu. Salbuespen Legea jarri zutenez geroztik are eta nabarmenago ageri da Frantziako Konstituzioaren espiritua. “Legeak Frantziako soldadutzaren nostalgia bati erantzun behar dio”, erran ohi du Macronek. Estatuak nostalgia horrek balore zenbait transmititzeko baliatu du belaunaldiz belaunaldi. Iraganen gizon egiteko funtsezko zerbitzu eta urratsa izan omen zen. Orain, berriz ere, hainbestetan aipatu ohi duen Bata-sun Nazionala bermatzeko ezarri nahi du zerbitzu hori.



Aitor Servier

Aitzina Gazte Mugimenduko kidea.

Nola hartu duzue Gobernuaren egitasmoa?

Ez dugu harrituraz hartu. Azken urteetako Estatuaren logika politikoaren jarraipena da. Segurtasuna eta Bata-sun nazionala areago bermatzeko ekimena da. Jihadistek iragan urteetan Parisen eta orobat Frantzia egindako atentatuen testuinguruan abiatu zen egitasmo hori. Soldadutza egiteko molde berria Estatuaren egituraren arazoei heltzeko modu bat da. Errepublikaren baloreen defentsa sustatu dute sutuki. Telebista, irrati eta egunkarien bidez kanpainak zabaldu dituzte gazteak armadan sar daitezen.

Estatuak zerbitzu hori nola zabaldu duen aztertu duzue.

Bai, zerbitzurako deiak arriskua ekarri baitu, eta baliatu nahi dute derrigorrezko zerbitzua ezartzeko, asimilazioaren bidean, besteak beste. Herriar heziketa deitzen duten hori Kolegioan eta Lizeoan ezagutu dugu gazteok. Errepublikaren seme-alaba otzanak hezteko baliatzen duten ikasgaia da. Armadaren inguruko hainbat kontu zabaltzen dute, horien artean Frantziako ikur patriotikoen berri ematen digute. Horretaz gainera, JDC delakoan (Defentsa eta Herriartasunerako eguna) parte hartzera behartuta gaude. Egun horretan, Frantziak munduan barrena egiten dituen eraso inperialistak heziketa onaren eredu gisa jasan behar izaten du gazteak. Armada, munduaren segurtasunaren eredu gisa azaltzen digute, hainbat herrialdek jasaten duten “terrorismoa”-ren aitzia-

kian. Hexagonoan eta itsasoz harandiko eskualdeetan armadak daraman jardueraz gain, poliziarena ere aipatzen digute eskolan, berebiziko ekimen gisara.

Euskal Herrian gatazka armatuaren aroa iragan ondoren, Estatuarekiko konfrontazio apaltze gisako bat izan da. Zer sentsibilitate maila dago jendartean, armadaren aferekiko?

Gure belaunaldiko kideok, agian, ez dugu ezagutu euskal gatazkaren fase gordiena, baina gatazkaren ondorioak hor daude, eta horiek pairatzen segitzen dugu. Presoak daude eta hainbat jende ihesean eta sasitan. Konfrontazioaren apaltze bat

aipatu duzu, baina Aitzinako gazte antolatuoi dagokigu konfrontazio hori berpiztea eta Estatuarekiko talka hori gure heinean agerraraztea. Zerbitzu nazionala eta militar behartu honen aurrean kontzientzia sustatzeko borondatea dugu. Gai horren inguruan gazteria antolatzea eta borrokatzeko moldeak lantzea da gure betebeharra.

Zein dira egungo bitartekoak edo borroka moldeak?

Horrelako inposizioari aitzina egiteko bitartekoak ez dira iragan garaiko berak, kontziente gara horretaz. Iraganen intsumisioa landu zen, eta intsumisioei kartzela zigorra handiak ezarri zizkieten. Gaur egun halako zigorrik ez badago ere, Zerbitzu Nazional Unibertsalean parte hartu ezean, autoaren gida baimena pasatzea debeka diezaiekete gazteei, Baxoa pasatzeko aukera kentzen ahal zaie, beste neurriren artean. Gure planteamendua hau da: euskal gazteriak ez dauka zerbitzu hori betetzeko inolako beharrik. Macronek “elkartasuna, auzolana, ardura hartzea, errespetua, askatasuna eta beste...” aldarrikatzen du Errepublikaren balioen ildoan. Aldiz, hemengo gazteriarren sektore bat gaztetxeetan, kultur taldeetan eta gizarte elkarreetan ari gara gure proiektuen ildoan, horietan sinesten dugu. Gure bitartekoak edo borroka moldeak egunero lantzen ditugun ekimenen baitan daude. Zerbitzu nazionala delakoan parte hartzeko behartu izanda ere, euskal gazteriarri ez dizkigute sinetsaraziko beren hitz horien giblean dauden baloreak.

bost urte betetzean, gazteek bideratuta eta barneratuta izan behar dituzten ikaspenak eta baloreak indartzeko balio behar du soldadutzak. Besteak beste: SNUen odola ematearen beharraz kontzientzia izan behar dute, ibilgailuen gida-baimena eskuratu aurretiko lezioak eta “beharrezko sentiberatasuna” jasoko dituzte, eta horiek gutxi bailiran, sexu-bortxaketari aurre egiteko prestatuko dituztela diote. Horiek eta beste ideia anitzez gain, Lehen ministroak “ideia guztiak ongi etorri” direla

gehitu zuen. Esaterako, askoren harridurarako, “gazte autista direnei buruzko aktibitate ziklo bat ere ‘imajinatu’ daiteke SNUren barnean”, gehitu zuen. Gobernuaren oposizioan dauden alderdietan nahiz gobernuaren inguruetan, ekimenak harrituraz gainera, kezka ere sorrarazi du. *Ménaouine* txostenak dioenez (Armadako Daniel Ménaouine jenerala da SNUren ardura nagusia duen taldeko burua), egitasmoak hiru milioi euroko kostua izanen du urteko. Anartean, Jean-Michel Blanquer

Hezkuntza ministroak iragarri du 1.800 lanpostu kenduko dituztela irakaskuntzan. Proiektua hasi baino ez da egin, baina hiruhilabete gehiago luzatuko balute, egitasmoak kostu are handiagoa ekarriko luke. Betiere, bistan da, Hezkuntza Sailaren kaltetan.

Gizartea txunditzea

Frantziako hedabide aurrerazaleek “bufoikeria”-tzat jo dute egitasmoa, SNU proiektuak, funtsean, derrigorrezko

EMAZTEAK ARMADAN, PATRIARKATUAREN ZERBITZUKO

Léon Duguitek 1927an zioen bezala, Estatua indar harremanen produktua da. Horren harira, armada jendartearen ezberdintasunen itxuratzea izan daiteke. Indar militarra izateaz gain, armada gorpu antolatua da. “Estatu bat Estatuan”, definitzen da maiz; nahiz eta Frantziako Estatuan presidentea armaden buruzagia izan. Gainera, armaden buruzagiak zuzenki harremanetan dira presidentearekin edo Lehen ministroarekin –eskumen ezberdinen arabera– eta beraien politika propioa ere aplikarazten dute. Sekulako boterea du armadak Frantziako Estatuan, erran daiteke ideologia propioa eraikitzen duela Nazioaren zerbitzuko, baina Estatuaren paraleloan.

Armadak bere komunikazio sarea du Frantziako Estatuan. Urte osoan SIRPA zerbitzuak (Armaden Harreman Publiko eta Informazio Zerbitzua) kanpainak koordinatzen ditu. Horrez gain, armada eta hedabide ezberdinen arteko lotura bermatzen du. Hori guzia aski ez bailitzan, aldizkariak ere baditu. 2018an, Defentsarako Sostengu Politiko Sailak 22.985,70 milioi euro zituen; jakinez parte handi bat komunikaziora joaten dela. Hots, defentsaren aurrekontu kredituen parte handiena da. Horrek erakusten digu armadaren boterea; jakinez gure jendartearen komunikabideen eta hedabideen kontrolatzeak zein eragin duen. 1990 urtetik aitzina armada “feminizatu” zuten, erreklutamendu kanpaina handi bat eginez. Emmanuel Macron-en programan den hilabete bateko



Pauline Guelle

Zuzenbide publikoan doktoregaia.

zuen armadatik kanpo baino salaketa guttiago gertatzen zirela armadan –jadanik zifrak apalak direlarik–. Fenomeno horren espplikazioa, hierarkia eta kideen zapalkuntza da. Alabaina, salaketak pausatzen dituzten emazteak gehienatan beste leku batera izendatuak, gaztigatuak edo atxilotuak dira.

Zerbitzu Nazional Unibertsalak saldu nahi digu berdintasun irudi bat. Nahiz eta frantses armadaren %15 osatzen duten emazteek, ez du erran nahi berdintasuna eragiten duela emazte eta gizonen arteko harremanetan. Gaia hori baino piesagoa edo potologoa da. Kontrako efektua eragiten du. Forma ezberdin bat hartzen badu ere, Estatua eta Armadaren arteko joerak erakusten digu jendarte patriarkalaren sendotze proiektua. Euskal herritar eta emazte gisa, zerbitzu unibertsala gu gabe egiten da.

SNU (Zerbitzu Nazional Unibertsala) delakoa, armada indartzeko baizik ez da izanen. Herritar guziak soldaduak bilakaraziz.

Alta, Estatua eta Armada ezberdintasun sozialen erreprodukzioa baldin bada, emazteen presentzia aipa daiteke. 2014n, atera zen *La guerre invisible: révélations sur les violences sexuelles dans l'armée française* (Gerla ikusezina: bortizkeria sexualen salaketak frantses armadan) Leila Milano eta Julia Pascualen eskutik. Liburu honetan, 50 kasu aztertu zituzten: jazarpen sexualak, bortizkeria sexualak, bortxaketak eta eguneroko bortizkeria sexistak. Bi kazetarien analisiak frogatzen

soldadutza ezartzeko xedez antolatu baita. Macronen gobernua “gizarte txunditzea”, “askotarikoaren gizarte” edo “elkarrekin bizitzea” terminoak erabiltzen ari da ekimenaren giblean dagoen asmoa itxuratzeko. Funtsean, hilabete bako bernetegi behartu horretan ezkutatu nahi dena haxe da: ikasleek hamabost urtera bitartean bere egin ez dituzten “balore sozial eta gizalegekoak” hilabete bateko ikastaldian nahi dituzte txertatu. Nahitaezko zerbitzu horretan, gazteek gizartearen jasotzen ez duten “bizitzaren gaineko ikasketa” eman nahi du gobernuak. Gizarte arauak ezarri nahi ditu soldadutzak, helduek berek betetzen ez dituzten arauak gazteek bete ditzaten.

SNU lantzen ari den batzordeko elehunak –parlamentariak berak– ezaugarri edo *tasun* sorta hau zerrendatu zuen Asanblea Nazionalaren aitzinean: “Kohesioa, kemena, onginahia, askatasuna, errespetua, oroimen lanketa, eredugarritasuna, apaltasuna, pres-

tutasuna, atxikimendua, elkartasuna, erantzukizuna, betebeharrerako sena, erresilientzia, esfortzuaren gustua...”. SNUk horiek guztiak “txertatu” nahi ditu gazteengan. Badira orde, SNU ezbaian

» **Gobernuaren egitasmoaren arabera, SNU zerbitzuak ‘Errepublikaren balore klasikoak berreskuratzeko’ balio behar du. Gazteen iletrismoa detektatzeko ikastaro gisa aurkeztu du ekimena, baita hauen osasunaren balantzea egiteko ere**

jarri, eta “ba al dago parlamentariaren artean ezaugarri horiek guztiak biltzen dituen inor?”, galdetu dutenak.

Izanez ere, ez dira gutxi “Frantzia ezberdintasunak direla medio odolusten ari dela” pentsatzen dutena. Hots, *Askatasuna, berdintasuna, senidetasuna* goiburuko lematzat duen nazioak “berdintasun” printzipioa urratzen ari da egunero. Macronek “senidetasuna” aldarrikatzen du, baina finean gazteak gerrara bideratu nahi ditu. Hori gutxi bailitzan, “askatasuna” ere urratzen du, SNU ez baita hautazko zerbitzua. Philippe Meirieu pedagogo da horrela pentsatzen duenetako bat. Haxe eman du publikoki aditzera berriki: “REPe (klase sozial guztietako ikasleei aukera bera emateko lehentasuneko hezkuntza instituzioa) ikasle batek, zailtasun sozial handiak dituenak, 6.000 euroren kostua dauka urtean. Aldiz, eskola handietarako prestatzen ari den ikaslea, klase sozial lagundutako hiritarra, 14.000 euro kostatzen zaio nazioari”.



Édouard Philippe Lehen ministroaren hitzetan, SNUren bidez ez dago “zerbitzu militarra bisortzeko xederik”. Alabaina, *Ménaouine* txostena Armadako jeneral batek kudeatuta dago, eta proiektuak militarren agindu ukaezinak barnebiltzen ditu. Hiritar askoren gogoan daude Macronen eledunak presidentzietarako kanpainan erabili zituen hitzak: “Frantziako lehentasunak bi dira: diziplina sarrarazi eta agintaritza ezarri”. Macronek Armadako goi-agintarien oniritzia behar zuen boterea lortzeko, baita lortu ere. Florence Parly da gaur egungo Armadaren ministroa. Goi-mailako funtzionario, enpresa publikoan jardundakoa, SNCF eta Air France-n, besteak beste. Alderdi Sozialistako (PS) Lionel Jospin Lehen ministro izan zen garaian, Estatuaren aurrekontuen idazkaria izan zen. SNU egitasmoa ez da bideratua izan, bere oniritzia aintzat hartu gabe: “Frantziako armada guztiek, historikoki bete duten tokia berrartu behar dute”.

Behin eta hasteko, oraindik nerabe diren gazteak barnetegian –funtsean kasernan– hezi nahi dituzte. Lehenik, gobernu berriaren iritziz, egitasmoa emeki zabaldu nahi dute, baina segidan, kritiko diren sektoreen –egiari zor, gizartearen gutxiengoa– harri durarako, ikasi beharreko printzipioak militarren pentsamenduak markatuta izanen dira. SNU edo soldadutza gisako hau apurka-apurka ofizialtzen joanen den zer-

bitzua legez aurreikusten da. Izan ere, egungo munduaren testuinguruak iraganeko logika militarra sustatzen laguntzen du. Logika eta osagai militarrek ari dira berriz ere sarrarazten jendartearen. Estatuko botereek “nostalgiazko” dei gisako bat hedatu dute gazteen artean azken hamarkada honetan. Konparazio baterako, jihadistien atentatu terroris-

tek iraganeko gerren nostalgia elikatu dute. Desabantailan bizi diren klase sozialen seme-alabak kanoi-bazkarako aproposenak bihurtu dira, Estatuaren nahikeriak bete ahal izateko. Macronek Frantziako presidentzia eskuratu aurretik, Asanblea Nazionalean lege proposamen ugari aurkeztu ziren derrigorrezko zerbitzua ezartzeko. Macron aurreko

ARMEN NEGOZIOA

- ✗ **Oxfam GKE**ren arabera, 640 milioi arma arin daude munduan, arma bat hamar pertsonako. Arma astunak bestalde.
- ✗ Munduan 1.249 arma enpresa daude, 90 estatuk ekoizten dituzte armak.
- ✗ 2014an armen aurrekontua 1.800.000.000.000 dolarrekoa izan zen (1,8 bilioi dolar).
- ✗ 2009tik 2013 bitartean, Frantzia munduko 5garren postuan egon da armen esportatzaileen rankingean. Frantziak armen %5 saldu du. AEBek %29. Errusiak %27. Alemaniak %6 eta Espainiak %3 (ideia bat egin aldera).

Arabia Saudiarekiko armen aferak:

- ✗ Frantziak 11 miliar edo bilioi (bilioia = 1.000.000.000.000) euroko armamentua saldu dio Saudi Arabiarrari 2010az geroztik.
- ✗ Saudi Arabiarri saldutako armamentuaren %60 Europan ekoiztia da.
- ✗ Europako enpresek, armez gainera, 57 milioi euroko kargamendua esportatu zuten Saudi Arabiara 2001eta 2015 urte artean.
- ✗ Frantziako Aireko Armadak lagundurik, Saudi Arabiarrak eta Arabiar Emiratuak 10.000 pertsona hil zuten Yemen-en 2015n. 9.500 herritarrek ziren, hots, zibilak.
- ✗ Frantziak Arabia Saudiri ekipamendu militarretan eurotan saldua, armez beste:

643,70 milioi.	██████████	(2014)
899,80 milioi.	██████████	(2015)
1.086,00 milioi.	██████████	(2016)
1.382,00 milioi.	██████████	(2017)



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako

© 943 650 253

www.tolosakobabarruna.eus



MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966

Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

governuen asmoak betetzera heldu da orain. SNU egitasmoa gauzatuz doan heinean, Macronen helburu behinena hiru eta sei hilabeteko derrigorrezko zerbitzu militarra posible egingen duen legea onetsia izatea da.

Noren aldeko zerbitzua?

SNUk izaera militarra sarrarazi nahi du gazteengan. Estatuak izaera hori Hezkuntza Nazionalaren baitan integratu nahi du, itxuraz hautazko pausoa balitz bezala hasieran, eta gero, lege berria onartua izan ondoren, modu behartuan. SNU lehen ekimena besterik ez da. Gobernua "hiritarren ibilbidea" kontrolatu nahi du nerabeen eskolarizatzeari gaitik beretik. Hamabost urteko gazteak EMC programaren (Heziketa Moral eta Zibikoa) jarraibideetan hezten hasten dira. Areago, hezkuntzaz arduratzen diren sektore aurrerazaleek, azken urteetan, Lehen mailako eskoletan gazteen identitatean noraeza militarra ezartzen ari ote den susmoa daukate. Historiaren ikasgaia eleberri frantziar nazional ospetsuaren ildoan ari da gogo biziz irakasten berriz ere. Ospakizun *patriotikoe*k, hots, militarrek, ereiten dute bidea, sinbolo nazionalen kultua egiten zaie gero eta era bereziagoan. Bigarren mailan jada, kolegioetan, Nazio Defentsaren Heziketa ikasgaiaren baitan dago. Ikasleek ez dute inolako aukerarik beren ikusmoldeak agertzeko. "Gerra, bakea, bonba atomikoa, gatazkak konpontzeko bortxa bitartekoa, nazioarteko harremanak, armen merkataritza edota estatuaren segurtasuna" bezalako gaiak, oinarritzakoak egungo heziketa libre eta egokia garatu ahal izateko, eztabaida ezinakin bihurtu dira. EMC programaren lehenbiziko lema honela diktatzen du: "Armadak nazioa zerbitzen duela ulertarazi behar zaie ikasleei".

Bere bultzatzaileek besterik esanda ere, SNUren behin behineko printzipioa zerbitzu militarra berrezartzea da: ikasleak kasernara eramatea, uniformeak jantzaraztea, gazteak militarren markoan ezartzea eta hertsatzea. Estatuak gazteei kontrol hertsagarria ezarri nahi die nerabazarotik beretik, gaztaroan heldutasunera iristeko bidea ixten die nerabeei. Estatuak hezkuntza erakundeetan heldutasunetik gabeko herritarra ari da hezten. Etorkizun askarik ez dago. Herritarrek auzitan ezarri ezin duten ordenu politiko eta sozial baten onarpe-

» SNU egitasmoa gauzatuz doan heinean, Macronen helburu behinena hiru eta sei hilabeteko derrigorrezko zerbitzu militarra posible egingen duen legea onetsia izatea da

na bilatzen du Estatuak. Kritika egitetik kanpo egongo den hiritarra hezten ari da Frantziako Estatuak.

Gizarte gogogabearen aitzinean

Frantziako Legebiltzarrean aldaketarik ezean, 2019ko urtariletik aurrera SNU abian ezarriko da. Aitzina mugimenduko Aitor Servierren hitzetan "Gobernuak kontsulta gisako sasi-inkesta bat antolatu du irakaskuntza sektore batzuen artean, eta oro har, ez da gazteriaren aurkakotasunik agertu, Frantzia ez da ikusten inolako erresistentziarik ikastetxetan, ezta gazteriaren munduan ere".

Frantziako ezkerrek ere ez du ahalmenik egungo gazteen sektoretan eragiteko. Servierrek ez du uste, egun nagusi den egoera horri aurre egiteko deus sortuko denik: "Bi gai ageri dira hor, ezkerren porrota eta gazteriaren antolatzeak daukan ahalmen eza. Halaber, prekarietatearen gaia ere hor dago, gazteriak bigarren mailakotzat jotzen du, baita ezkerrek ere".

Frantzia inperialista kritikatzeko ahalmenik ez da antzematen frantziar jendartearen. Ipar Euskal Herriko gazteria, bere txikian bada ere, salbuespena da Hexagonoan. Aitzinako gazteek horrela diote: "Konstituzioan aldaketarik egin ezean, zerbitzu nazionalak ez du derrigorrezkoa izaterik oraingo. Macronen erranen arabera, ez litzateke beraz intsumiturik egonen; berdintasunaren eta senidetasunaren ideia barneratzea lortu ez duten gazteak baizik. Menturaz, arrazoia dauka. Ez ditugu barneratu gu makurtzea helburu duten Errepublikaren baloreak. Euskal gazteria, askapen prozesu ororen hauspoa izan da eta izanen da. Ez dugu zerbitzu nazionalik behar engaiamendua zer den ikasteko". ■

Baraua

Gorputza garbitu berriro hasteko

Munduko animalia eta haur guztiek instintuz uzten diote jateari gaixo daudenean. Baraua gorputza, burua zein espiritua garbitzeko erabili da betidanik; berriro hasteko garbitu.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak



ILUSTRAZIOA: IZARO MARIEZKURRENA

Elikagaiak sendatze prozesuan indartu egiten gaituzte eta gaixotasunean ahuldu. Hala dio Karmelo Bizkarrak, medikuntza higienistan adituak. “Gosea joan egiten zaio elikagairik absorbitu nahi ez duen gorputzari. Gaixo dagoenean ez du jaso nahi, garbitu baizik”.

Andia mendilerroan dagoen Zuhaizpe Osasun Zentroa darama Bizkarrak. Fisikoki eta emozionalki sendatzeko eta gaixotasunak aurreikusteko hurbiltzen da jendea hara. Pertsona bakoitzak asetebeke egonaldia egiten du gutxienez, eta helburua “norberak bere bizitza berreskuratzeko” da. Baraua praktikatzeko dute gehienek.

“Guztiok behar dugu bizitzaz desintoxikatu”, adierazi du Bizkarrak, “bizitza erritmoa kaltegarria da, jaten duguna ez da sana, alkohola edaten dugu uraren ordean, medikamentuak hartzen ditugu...”. Zentroan asko zaintzen dute elikadura, janari ekologikoa dastatu ohi dute, in-sektizida, pestizida eta substantzia toxikorik gabea. “Gauza bera diot beti: janari-rik osasungarriena etiketarik ez daukan hura da”. Kolore eta forma desberdineko

elikagaiak jan behar direla gehitu du, eta gaurko medikuntza nutrizionalak ikuspegi zabaltzea gustatuko litzaiokeela: “Fruta eta barazkien forma zein koloreek informazio ugari ematen dute eta gaixotasunen aurrean zein aholatzea komeni zaigun jakitea garrantzitsua da”.

“Ura, salda eta ohera”

Hori baino lehen, ordea, garbitu egin behar da gorputza. Prozesua pixkanaka egitea aholkatu du adituak: lehenik barazki eta frutekin elikatu, ondoren frutarekin soilik eta azkenik barauan geratu. Gorputzak ez diola elikatzeari uzten gogorarazi du, dituen erreserbak hartzen dituelako. Badira hiru edo lau egun igarotzen dituztenak, baita zazpi edo hamar egunera arte luzatzen dutenak ere. Barau egitea ez da beti komenigarria, esaterako, gaixotasun larriak sufritzen dituzten pertsonen kasuan.

Prozesu horretan ezinbestekoa da ura, hidratazioa. Infusio eta zukuak ere gomendatu ditu.

Elikagairik gabeko egun horietan gaixotasunekin nahastu ohi diren sinto-

mak sentitu daitezke: goragalea, buruko mina, mihia zuri izatea, pixa iluna eta usaintsua... “Kuriosoa da, betekada kasuetan sintomak berdinak direlako, baina oraingoan gorputza garbiketa prozesuan dagoela adierazi nahi dute”.

Prozesu hau, baina, kontrolpean izan ohi dutela azpimarratu du, hiru egunetik gorakoak direnean bereziki: “Ez du hainbesteko kontrolik behar, ordea, katarro batekin zaudenean. Izan ere, horiek dira une egokienak baraua egiteko: katarroa izatean, beheakoa, gonbitoka hastean... Lehenago sendatzen dela ikustean sorpresa hartzen du jendeak”.

Ez jatearekin batera, deskantsuak ere garrantzi handia du, ahalik eta energia gehiena libre egon dadin, garbitasunean zentratu: “Ura, salda eta ohera. Hori egiten zuen nire amamak. Garai hartan ez zegoen hainbeste medikamentu eta intuituari jarraitzen zion”.

Horrez gain, ura, haizea (arnasa) eta argia (eguzkia) aintzat hartzeko aholkatu du, “elikagaia ez delako soilik jaten duguna”. ■

Gauerako aterpea ala iraultza?

Mundua ez da aldatzen biluzik daudenentzat aterpea bilatuz. Ideia hori poema bihurtu zuen Bertolt Brechtek; poema hura kanta Mikel Laboak. Uste hori partekatzen al du xede iraultzaileak dituen herrigintzak? Bere borroketatik kanpo utzi al dute herri mugimenduek oinarritzko beharren eguneroko asetzea? Zergatik? Oldarraldi neoliberalaren garaiotan, aterpea edo jana bezalakoak borrokatzeari heldu behar al dio herrigintzak? Nola uztartu berehalakotasuna eta zeruertz iraultzaileak? Zer dago ikasteko, zer desikasteko?



Z. Oleaga

Etxebizitza, jana, arropa: gauerako aterpea biluzik daudenentzat. Horiek borrokatzea ez da egon, azken hamarkadetan, mugimendu herritarren agendan. Ez, behintzat, mundua aldatu nahi duten mugimenduenetan.



SEBASTIAO SALGADO

Ez al dira herrigintzaren arazoak?

“Buruak pentsatzen du oinek zapaltzen duten tokian”, esan zuen Paulo Freirek. Euskal Herriko herri mugimenduetako kideek, oro har, ez dute zapaltzen jendartearen espazio baztertuenetan.

Hamarkadetan, gainera, patriarkatu kapitalistak bere aurpegi onberena erakutsi du gure herrian. 1990eko eta 2000ko hamarraldiek izan dute pobrezia gutxien eta urte horietan garatu dira gehien prestazio publikoak. Aldi berean,



Ezkerreko orrian, Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimendua. Goiko argazkian, Manresako (Herralde Katalanak) Kapitalismoak eta Hipotekak Kaltetutakoen plataforma.

logika neoliberalak habia egiten zuen gure barnean. Pobreziak eta bazterketak gero eta gehiago zuten porrot eta erru pertsonaletik, gutxiago jendarte ereduaren ondorioetik. Begirada hori barneratuz gero, pobretuari lotsa nagusituko zaio haserrearen gainetik; lotsa ezkutatu egiten da plazaratu baino gehiago; ezkututzen denaren aurka borrokatzerik ez dago. 2008ko eraso neoliberalaz geroztik, ordea, errealitate objektibo eta subjektibo horiek eraldatzen ari dira.

Izan dira eta badira errealitate horiek jorratu dituzten praktika eta ekimen herritarrak, noski. Bestelako kontraesanak agertu izan dira orduan: askotan, borrokek ez dute izan kaltetuenen parte hartzerik. Adibide pare bat: etxebizitzaren okupazioek gehiago izan dute gazteen hautu politikotik, baztertuen behar gorritik baino; Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren aldeko ekimenetan, protagonista nagusiak prestazio horren beharrik ez duten mugimenduetako kideak izan dira.

Bestalde, ezker erradikalean arlo eta zeregin hauekiko gutxieste ideologikoa ere egon da. Cristina Vega ikertzailearen hitzetan, urte luzez “zaugarritasuna gogorazaziko zukeen edozerk arreta desbideratzen zuen jardura iraultzailetik”. Gauerako aterpea bilatzea askotan lotu da jarrera asistentziala eta

karitatezkoekin, elizekin eta erakundeekiko menpekotasun handia duten GKEekin. Mundua ez da era horretan aldatzen, hortaz? Edo mundua aldatu nahi ez dutenen eskuetan abandonatu du herrigintzak eraldatzailea izan daitekeen borroka eremu bat? Beharrezkoa al da ipar iraultzaileak eta egu-

» J. Strozake:

“MSTa berehalako behar konkretuetatik abiatzen da. Lurrerako sarbidea da muina, erabiltzen ez diren lurak okupatuz. Nekazaritza-erreforma lortu behar dugu guztiontzako, bigarren helburua epe luzeagoan. Baina kapitalismoa eraitsi ezean erreformak atzera egingo lukeenez, jendarte eraldaketa da hirugarren helburua”

neroko beharren asetzea uztartuko dituzten ideiak, baloreak, praktikak, sentsibilitateak garatzea? Baiezkoan daude erreportaje honetarako elkarriketatu ditugun hiru lagunak: Janaina Strozake, Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduko (MST) kidea; Alex Winfield Gonzalez, Manresako Kapitalismoak eta Hipotekak Kaltetutakoen Plataformakoa (PAHC); eta Marta Abiega Ayus, Bizkaiko Harrera Sareko (BHS) militantea.

Latinoamerika, aspalditik lanean

Latinoamerikako esperientziak askotarikoak dira eta urrundik datoz, muturreko eredu neoliberalak aspaldi inposatu baitziren han. MSTa kontinente osoko mugimendu erreferentziazkoena da ziurrenik. Ehunka mila pertsonak osatzen dute, ehunka kanpamentutan banatuta.

Janaina Strozake MSTko militantea da mugimendua 1984an sortuz geroztik. 2008tik du “maitasunezko” harreman estua Euskal Herriarekin: “MSTa berehalako behar konkretuetatik abiatzen da. Lurrerako sarbidea da muina, lehen helburua hura konkistatzea da, erabiltzen ez diren lurak okupatuz. Berehalako borroka harago, nekazaritza-erreforma lortu behar dugu guztiontzako, bigarren helburua epe luzeagoan. Baina badakigu kapitalismoa



Bizkaiko Harrera Sareak antolatutako ekimena.

eraitsi ezean nekazaritza-erreformak atzera egingo lukeela. Horregatik da jendarte eraldaketa gure hirugarren helburua, sozialismoa edo komunismoa. Lurren okupazio prozesua azaldu du Strozakek: “Hurbileko biztanleriarekin egiten da lanketa. Fabeletan atez ate, sindikatuarekin, elizarekin...”. Desjabetuetan desjabetuenak dira hartzaileak, esperientzia militanterik gabeak gehienak, MSTaren baloreak zertan konpartitu ez dutenak. Isilean egiten den okupazioa prestatzeko hitzaldi formatiboak egiten dituzte aurretik, “kontu praktikoak eta printzipio politikoak lantzeko”. Lantaldeak beharren arabera osatzen dituzte: osasuna, jana, segurtasuna, hezkuntza... Pertsona guztiak dira lantalde bateko kide, “eta nukleo bateko kide, aldi berean”. Okupazioa lehenbiziko urratsa da bide amaigabe batean: erresistentzia, lurrak legalki irabazi, bizi-baldintzak hobetu, produkzioa bultzatu... Kanpamentu barnean bestelako bizitza bat uneoro eraikitzeko borroka eginez.

Euskal Herria hiritarra da nagusiki, baina MSTko balore eta praktikek “edozein antolakuntzarako balio dute. Haurtzaindegi batetik banku etikoaren inguruko mugimendu batera”. Brasilgo hiriburuetan milaka eta milaka etxebizitza dituzte askotariko mugimenduek okupatuak, eta horietariko askok egiteko modu ugari partekatzen dituzte MSTarekin.

Herrialde Katalanetatik, 2008ko erasoari erantzunez

2008ko krisiaren aitzakian Artur Masen gobernuak inposatutako murrizketak politikak oso bortizki kolpatu zuten Katalunia. Manresako *ateneu* okupatuko sektore antikapitalistek eta ezker independentistakoek etxebizitza borrokari heltzea erabaki zuten 2013an, “merkatuak eta estatuak asetzen ez dituzten beharrak asetzeko”, dio Alex Winfieldek. “Lehen asanblada oso jendetsua izan zen, jende ezezaguna, kultura politiko jakin batetik ez datorrena. Hasiara hartan hipotekak eta enplegua zituzten pertsona zuriak ziren nagusi. 2015etik aldatuz joan da. Alokairua ordaindu ezin dutenak, kalean daudenak, etxe txiki bat 15 pertsonen artean konpartitzen dutenak gehitu dira. Egun gehiengoak komunitate marokoarra da”.

» Emakumeek presentzia handia eta nabarmena dute mugimendu mota hauetan. Askok zaintzak eta lan erreproduktiboak borrokan presenteago egotearekin lotzen du

Okupazioak egiten ditu PAHCek, alokairu sozialak lortu, etxegabetzeak gelditzeko kontzentrazioak. “Ehunka etxegabetze ekidin ditugu”. Zazpi etxebizitza bloke dituzte okupatuak, 60 familia eta 250 pertsona inguru bizi dira bertan. Hiru emakume talde, 64 haur dituen herri-eskola eta adingabeen zentroetatik irten berri diren gazteentzako gunea ere badituzte.

Igandero biltzen dira 50-70 lagun asanbladan. Lehendabizi, gai kolektiboak eta antolakuntza mailakoak jorratzen dituzte: okupazio berriak, koordinazio bilerak, eztabaida politikoak, mobilizazioak. Ondoren, kasu eta behar “partikularragoak” lantzen dituzte: Bankuak etxegabetzerako data jarri dion familia, kale gorrian dagoen heldu berria, bloke bateko elkarbizitza arazoa, bankuarekin edo zerbitzu sozialekin zita duen pertsona. Akonpainamenduak dira PAHCaren ardatzetako bat. Inor ez doa hitzordu batera bakarrik. Hizkuntza eta informazio arazoei, administrazioaren bidegabekeriei, mespretxuzko jarrerrei aurre egiteko elkartasun eta ahal-duntze neurria da.

Euskal Herrian, hastapenetan?

Gure artean ere bada borroka pauso motz eta luzearen arteko tentsio horretan garatu nahi duen mugimendurik. Horietako bateko kide da Marta Abiega. Uda Bilboko auzoen Harrera Sarean murgilduta eman du. Egoera zehatz bati erantzun azkarra emanez sortu zen sarea, baina jarraitu egingo dutela ziurtatu digu.

Bilbora heltzen diren migratzaileei aterpea, jana edo aholkularitza juridikoa eskaintzeaz batera, mobilizazioak egin dituzte, eta egoeraren jatorria kapitalismoan edo politika inperialistetan kokatu dute. Abiega kritikoa da ezkerak eta herrigintzak desjabetuenen beharren aurrean duen jarrerarekiko: “Batuetan, hori instituzioen lana dela eta ez herri-tarrona esanez, gure ekintzarik eza zurrizten dugu. Premiazkoena jatekoa zen, eta energia asko xahutu dugu horretan. Batzuek, desados, ez dute horretan parte hartu. Nik kamerundar baten hitzak erabili ohi ditut: ‘guk, bien bitartean bizi beharra dugu’. Paperak lortu bitartean, bizitokia lortu bitartean...”. Bien bitarte horri erantzutea erabaki zuten Abiegak eta beste askok.

Nahastearen ederrak eta miseriak

Winfieldek, Strozakek zein Abiegak euren mugimenduen barnean ematen den aniztasuna azpimarratu dute: batetik, baldintza sozioekonomiko oso ezberdinetako pertsonak, tartean migrante pobretuak; bestetik, ezkerreko kultura politiko militanteetatik datozenak eta esperientzia zein erreferentzia militanterik gabeak, tartean mugimendura behar material hutsagatik batzen direnak. Militantziaren eta bizitzaren espazioak eta denborak, argiki ezberdinduta egon ohi direnak, txirikordatzera jotzen dute batzuetan. Ederretik asko duen nahasketa da. “Alde positiboa aniztasuna da, aldi berean denok ikasten eta irakasten ari tzea” dio Strozakek. “Gure markoak eta analisiak gauza batzuetarako baliagarri zaizkigu, baina errealtatea beti da apatsua, nahasten dira klasea, arraza, generoa... eta mila eztanda gertatzen dira”, hausnartu du katalanak. Emakumeek presentzia handia eta nabarmena dute mugimendu mota hauetan. Askok zain tzak eta lan erreproduktiboak borrokan presentego egotearekin lotzen du.

Itsusitik eta arriskutik ere bada ugari. Abiegak eta Strozakek “idealizatzearen arriskuak” nabarmendu dituzte. Aniztasunaren jakitun izanik ere, non eta nola jarri marra gorriak? PAHCaren blokeetan eta MSTko kanpamentuetan, esaterako, eraso matxistek erasotzailea kanporatzea dakarte. Eta gertatzen dira. Antolakunde barneko botere harremanak arazo handia dira. Joera hauxe da: “politizatu” eta sozioekonomikoki integratu boteretuak gainean; “ez-politizatu” eta baztertu boteregabetuak azpian. Strozakek gordin azaldu du: “Bada jende bat jaiotzetik baldintzengatik irakurtzeko, ikasteko, umetan egoki elikatze-

ko aukera izan duena. Mundua analizatzeko duten gaitasuna ezinbestekoa da klase borrokarako. Baina borroka eraldatzailea eraldaketa horren beharra dutenek egingo dute. Unibertsitateko irakasle batek, postu ona duen langile batek, ez du egingo. Kalean dagoen pertsonak, etxegabetua edo migratzera behartua izan denak, horrek bai. Gauza da nola uztartu bi errealtate hauek. Baina norabidea behetako markatu behar dute”. PAHCean “botere harremanak daude”, dio Winfieldek. Militante zuri ikasketadunak gutxiengo dira asanbladan baina haien kopurua eta pisua ez datoz bat. “Kontrolatu eta gutxitu behar ditugun hierarkiak dira, bidean aurkitzen goazen modu eta bitartekoekin”. Norbanakoen ginetik “hausnarketa eta inteligentzia kolektiboa sustatzeari” garrantzia ematen dio.

Instituzioekiko harremana

Erreminta eta gaitasun propio autonomoak garatzen saiatzen dira denak. Baina instituzioei ere zuzentzen zaizkie oinarritzko eskubideak bete ditzaten exijituz. Oreka zaila da: ideologikoki, inbertitu beharreko ahaleginaren aldetik zein desaktibatuak, kooptatuak edo asimilatuak izateko arriskuagatik. “Formazio politiko handia eskatzen duen oreka da. Baina iraultza egin eta estatua desagertu bitartean, diru publikoa disputatu behar dugu. Gurea da”, dio Strozakek. Winfield antzeko bidetik doa: “Administrazioei exijitu egiten diegu. Oro har harremana gatazkan oinarritu da, eta negoziatio garairik ere izan da. Gure jarduerak administrazioa tenkatu du, eta euren politika jakin batzuk aldarazi ditu”.

Beste toki batetik heldu dio Abiegak gaiari: “Zer harreman izan behar dugu instituzioekin tratatu estua duten elkarte handiekin? Gurutze Gorria, CEAR, Munduko Medikuek, Caritas. Elkarte horietako langileetako batzuek esaten digute haiek ezin dutela parte hartu protestetan, instituzioek alboratu egingo lituzketelako. Jarrera horiek dituzten elkar teek ez dute gure aktibismoa gelditu behar”.

“Lau urtean behin bozkatzea nahikotzat hartu ez dezagun”

Kontua ez da emaitza, gauerako aterpea lortu edo ez, ohartarazi gaitu Strozakek: “Kontua da nola egin etxea, argia, jatekoa lortzeko prozesuak formatu gaitzan. Behin lortuta ere jarraitu dezagun

bizitza politikoarekiko interesa izaten, lau urtean behin bozkatzea nahikotzat hartu ez dezagun, soldatapeko lana bakarrik ez dadin aski izan”. Fruituak ez dira egun batetik bestera eta masiboki heltzen. “Jende asko sartu eta irteten da uneoro. Arazo batekin sartu eta konpondu ostean jarraitzen duen jendeak ematen du distira. Bidean arazoa bera ulertzeko modua ideologikoki eraldatu dutenek. Gutxi dira”, dio Winfieldek. Baina argazkia ez da zuria ala beltza. “Beste batzuk geratzen dira jaso duten elkartasuna bueltatu nahi dutelako, badira afektua eta errekonozimendugatik geratzen direnak, edo baliagarri sentitzeagatik geratu garenak”.

Prozesua denek egin behar dute, ordea. Birpolitizatzea orokorra izan behar du. Egonkortasun ekonomiko jakin batean mugitzen den militante klasi koarentzat etxeko-lanak ere agertzen dira elkarrizketatuen ahotsetan. Abiega, Strozake eta Winfield, hurrenez hurren: “uneoro desikasteko jarrera izatea, tartean gure etnozentrismoa. Apur bat elitistak ere bagara, eta joera dugu endogamiara jotzeko, berdinaren artean elkartzeko”; “Oinak lurtean, oinarrian mantendu. Okerren dauden pertso nekin egon behar dugu konektatuen”; “Aurreiritzi guztiak alde batera utzi, eta gauzak egiten hasi, egin. Gure posizio eta balore politikoetatik abiatuta, noski”. Gauza asko irabazteko, baina galdu beharreko erosotasun eta posizio asko ere badira.

Bertolt Brechten poema irakurri diegu hiru solaskideei, iradokitzen dienaz galdezka. “Agian pentsatu dugu mundua ez dela horrela aldatzen. Baina nik uste dut mundua horrela ere aldatzen dela. Nik uda honetan une batzuetan aldatzen nuela sentitu dut”, dio Abiegak. Strozakeri Fidel Castroren esana etorri zaio gogora: “Elkartasuna duzun hori konpartitzea da, ez soberan dagoena. Gosez eta hotzez dagoen pertsonak ez du iraultzan pentsatzeko joerarik”. “Tristatu eta hunkitu egiten nau”, dio, zintzo, Winfieldek, “baina biak uztartzeko modua aurkitu behar dugu, bata gabe ez delako bestea posible”.

Gauerako aterpeak lortu eta mundua aldatu, uztartze ariketa zaila. Mundua aldatu biluzien daudenentzako aterpe rik gabe, ezinezko ariketa da. Gauerako aterpea ala iraultza? Gauerako aterpea eta iraultza. ■



Mona Chollet

“Ezinezkoa da noizbait sorginaren rolean ez aurkitzea”

Mona Chollet (Geneva, Suitza, 1973) *Le Monde Diplomatique* egunkariko kazetaria eta saiakera idazlea da. Frantzia salgai dago irailaz geroztik bere azken lana: *Sorcières – La Puissance invaincue des femmes* (Sorginak – Emakumeen garaitu gabeko indarra). Europako sorgin ehizaren garaiko herentzia patriarkala gaur egunera ekarri du. Galdera bat bota du: zergatik dira zalantzan jarriak emakume independenteak, adinekoak eta umerik ez dutenak? *Revue Ballast* hedabideak argitaratu du Cholleti egindako elkarrizketa. Horko zati bat ARGIAra ekarri dugu *El Salto* hedabidearen bitartekaritzari esker.

Revue Ballast hedabidea

ARGAZKIA: STÉPHANE BURLLOT / REVUE BALLAST

Izenburua izenburu, zure liburuak pixka bat baino ez du hitz egiten sorginei buruz. Sorginak, ezer baino gehiago, irudi bat dirudi, hainbat motatako emakume estigmatizatuak imajinatzeko lagungarri. Ez naiz historialaria eta ezingo nintza-teke saiatu sorgin ehizaren historia egiten. Historialari emakumezkoen eta gizezkoen lanak irakurri ditut, baina, hain zuzen, garai hartan jazarri zituzten emakume motak (geroago aletu ditza-kegu) aletzea interesatzen zitzaidan: ezkongabeak, alargunak, bere ugalketa

kontrolatzen zuten emakumeak, adineko emakumeak.

Emakume mota horiek estigmatizatu-tuta, emakume guztiek nolakoak izan behar zuten birformulatu zuten. Sorgin ehizaren bidez hainbat motatako jokae-rak debekatu ziren, eta muturreko in-darkeria erabili zuten zapalkuntzarako. Ehiza horien ondorioek gizarteko ema-kume guztiengan izan zuten eragina: ikerketez eta torturez harago, emaku-meek etengabeko mehatxua jasan zuten, arauak betetzeko agindu moduko bat.

Emakume batengan onargarria zer den eta zer ez den irudikatzerakoan ho-rrek guztiak eragin diziplinario indar-tsua izan zuela uste dut. Hasteko, debe-kua indarkeria eta errepresioa erabiliz ezarri zen, eta ondoren, XIX. mendetik aurrera, nolabaiteko losintxaren bidez. Emakumeen heziketak beste norabide bat hartu zuen, justifikazio moral eta medikuak erabiliz. Sorgin ehizaren bi-dez oso modu bortitzean hasitako he-ziketa prozesua era goxoagoan egiten jarraitzeko modua zen.

Indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko eguna

#BAIETZIKGABEEZETZDA

A25



Hiru eratako "sorgin" jazarriak zirriborratzen dituzu: emakume independenteak, umerik ez daukaten emakumeak, eta emakume zaharrak. Emakume independentearen barruan sar genezake etxeko eremuan ez dagoen emakumea? Sorginak, etxeko eremura lotu ohi diren objektuak, adibidez erratza, eraldatzen ditu.

Bai. Nolabait esatearren nire *Chez soi. Une odyssée de l'espace domestique* lanaren (Etxean. Ereku pribatuaren odisea) jarraipena da. Sorgin ehiza emakumeak lanbide ugaritatik egotzi zituzten garaia da, ama rola eta etxeko eremua ezarri

zitzaien. Emakumeak independente izatea eta bizitza sozialean parte hartzea gaizki ikusiak daude.

Atalburu oso bat haurrak ez izateko hau-tuaz idatzi duzu. Mugimendu feministaren goiburua ospetsua da "Umea nik nahi badut, nik nahi dudanean", eta zuk goiburuaren lehenengo zatiari baino ez diozu erreparatu. Tabu bat eraso duzula uste al duzu?

Gaiaz hausnarketa gabezia dago. Amatasuna gaitzesten duten eta amatasunari herra izatea bultzatzen duten feminista zitatez sarri halako irudikapena egiten

da. Egiaz, testu feministek gutxi hitz egiten dute amatasunaz. Umerik ez izatea ez da hainbeste babestu den aldarrikapena.

Gatazka eragin duten norbanakoen jarrerak aurki daitezke: Erika Jong feminista estatubatuarrak kontatu izan du batzar feminista batean bere poema bat irakurri zuela. Poemak bere bizitzan amatasunak izan zuen garrantziaz hitz egiten zuen, eta batzarrean entzuleek txistua jo zioten. Emakume haiek diskurtso usatua entzun zutelako haserretu ziren, baina nahiko jarrera itsusia izan zuten. Bakoitzaren bizipenak errespe-



#25NBIZKAIA

**DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES
EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Bizkaia
foru alderdia
diputación foral

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIAREN EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

“Ezkongabeak, alargunak, ugalketa kontrolatzen zuten emakumeak eta adinekoak estigmatizatuta, emakume guztiek nolakoak izan behar zuten birformulatu zuten”

tatu behar dira, hor egon daitekeen edo egon ez daitekeen desioa, alegia. Bi aukerak errespetatu behar dira. Alabaina, niri orokorrean gutxi garatzen den diskurtsoa garatzea iruditzen zitzaidan garrantzitsua: umeak ez izateko erabakia.

Ume bat nahi izatea errailetan dakargula esaten zaigu, ez dagoela zalantzan jartzerik. Halaz ere, guk erraiak daukagu eta ez dugu umerik nahi. Diskurtso horrek presio soziala bazter uzten du, presioa sena deitzen dioten horrenpean estaltzen da. Gure gizartean haurrak izan ala ez izan erabaki dezakegu... baina izateko baldintzapean. Gure buruari galde geniezaioke zergatik dagoen halako zentsura soziala, zergatik umeak izatea lehenesten den aukera naturala den, eta era berean lurra gainpopulatuta dago, planetaren etorkizunak beldurra ematen du alde batetik edo bestetik begiratu. Haurrik izan nahi ez duten emakumeen aurrean ematen diren erantzunek erakusten dute zenbateraino hartzen diren emakumeak esentzia bakarraren ordezkari. Umeak izan nahi ez dituen emakumeak zera entzungo du: “A, baina nahi eta ezin duten emakumeengan pentsatu beharko zenuke”. Zein da harremana? Hori esate

SORGIN HILAK, ERBESTERATUAK, LINTXATUAK...

Zer esango zenieke sorgin ehiza gertakizun historiko nagusitzat hartzerik ez dagoela diotenei, hala hartzeko biktimak nahikoa ez dagoela argudiatuta?

Europar 50.000 eta 100.000 biktimak arteen egon zirela kalkulatu da. Alabaina, zifra zalantzarria da, eta ez dira kontuan hartzen hil ez zituztenak baina bai lintxatu, erbesteratu eta bere buruaz beste egin zutenak. Ez dut uste hildako kopuruak zehazten duenik gertakariaren garrantzia. Torturen eredugarritasuna biktimak zuzenez askoz harago heldu zen. Eredugarritasun horrek gizarte osoari eragin zion iruditeria moldeatu zuen, eremu geografiko zabalean, aldi luze batez.

tea emakumeak gehiago edo gutxiago trukatu litezkeen izakitzat hartzea da.

Gizarteak desioak nola eraikitzen dituen hitz egin duzu, baina baita “erloju biologikoaren” inguruan dauden mamuei buruz ere.

Horrek emakume zaharraren eta haurrik gabeko emakumearen estigmatizazioa zeharkatzen ditu. Eerloju biologikoaren ideien bidez ziurrenik emakumeak gehiegizko presiopean ezartzen dira: ama izan behar dutela errepikatzen diegu etengabe, bizkor ibiltzeko, bestela ezinezkoa izango dela, patua galduko dutela.


“Denok zahartuko gara, baina gure gizartean emakumeak ez dauka ondo zahartzeko modurik”

Presio sozialak emakume guztiengan gauzatzen dira, klase sozialak gorabehera?

Orokorrean bai. Nola ez, goi klaseetako emakumeek ondo elikatzeke baliabideak dituzte, osasun ona izateko, zaintzeko. Gorputza gazte eta osasuntsua erakustea, sarri, ezaugarri sozial oso indartsua da. Baina horrek presio sozial oso handia ere eragiten du. Orokorrean, uste dut klase sozial guztietako emakumeek sentitzen dituztela halako aginduak.

Zuk emakumez orokorrean hitz egin duzu, beste batzuek berriz, Redfern Barrett idazle britainiarrak adibidez, sorgin queer-ean jartzen du fokoa.

Emakume guztioi dagokigula uste dut. Oso erraza da sorgina izatea. Gizartean bidea hain da estua emakume onargarria izatea nahi denean (posible da?): ezinezkoa da noizbait sorginaren rolean ez aurkitzea. Bestela, izaki bortxatuak eta lotuak gara, berezko ezer ez dugunak. Agian, emakume zaharrak dira kategorizazio horri gehien aurre egin behar diotenak. Denok zahartuko gara, baina gure gizartean emakumeak ez dauka ondo zahartzeko modurik. ■

	Azaroak 21, asteazkena: 17:00 Urumea Herri Gunea BURUBEROKI TAILERRA Kamiseta zahar bat eraman behar da Antolatzaileak: Hernaniko Koordinadora Feminista	Azaroak 23, ostirala: 18:30 Biteri kultur etxea BELDUR BARIK LEHIAKETA Antolatzaileak: Berdintasun Kontseilua eta Hernaniko Udala	Azaroak 27, asteartea: 18:00 Biteri kultur etxea “HEDABIDEEN PAPEREA INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN: INFORMAZIOA ALA DESINFORMAZIOA” Mugak Gabe GKE-ak egindako ikerketaren aurkezpena eta ondoren solasaldia Irati Sarasua Arabaolaza kazetariaren eskutik. Antolatzaileak: Berdintasun Kontseilua eta Hernaniko Udala	
	Azaroak 22, osteguna: 18:00 Iturola ZAINTZA PLAZARA! TAILERRA Antolatzaileak/organiza: Iturola Elkartearen Sorgunea	Azaroak 25 de noviembre: Igandea - Domingo 13:00 Plaza Berria MANIFESTAZIOA/ MANIFESTACIÓN Antolatzaileak/organiza: Hernaniko Koordinadora Feminista	17:00 Gaztelekua PRECIOUS PELIKULA Antolatzaileak: Hernaniko Gaztelekua	
				

DOGGERLAND: IZOTZAK URTZEAN ZER?



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Ipar Itsasoa, XVIII. mendearen erdialdea. Herbehereetako kostaldean arraste-arrantza hedatzen hasi zenean, arrantzaleak, mihi-arrainez eta platuxez gain, objektu arraroak ateratzen hasi ziren itsas hondotik: letagin handiak, errinozero edo uroen arrastoak... Eta atzera itsasora botatzen zituzten. 80ko hamarkadan Dick Mol eta Jan Glimmerveen izeneko paleontologo zaletuek arrantzaleekin hitz egin zuten, arrasto horiek gorde eta topatutako tokiaren koordinatuak jaso zituzten. 1985ean giza masailezur oso bat eman zieten: erradiokarbonoaren arabera, hezurak 9.500 urte zituen eta, beraz, gizaki hura Mesolito garaian orain ur azpian dagoen eremu hartan bizi zen.

Arkeologoek Doggerland esaten diote duela milaka urte lehorrean zegoen lurralde hari, Ipar Itsasoko Dogger izeneko harea-bankuagatik. Urpeko arkeologia beti izan da zaila, baina itsasbeheren baimenarekin Britainia Handiko, Herbehereetako, Danimarkako... kostaldean egiten diren indusketetan geroz eta informazio gehiago biltzen ari dira Doggerlandi buruz. Gainera, 2007tik aurrera Birminghameko Unibertsitateko lantalde bat lurralde horren topografia aztertzen ari da, itsas hondoko datu sismikoetan oinarrituta; Doggerlanden mapak 50.000 kilometro koadrotik gora ditu dagoeneko.



ALEXANDER MALEEV

Doggerland duela 10.000 urte. Biltzaile-ehiztari taldea biziokira itzuli eta urak hartu duela konturatzean.

Duela 18.000 urte Ipar Itsasoaren maila egungoa baino 122 metro beherago zegoen eta tundra izoztuak hartzen zuen gaur egun urpean dagoen ia eremu osoa; esaterako, Britainia Handia ez zen uharte bat. Planeta berotzen joan ahala, Europa kontinentaleko landareak eta animaliak iparralderantz zabaltzen joan ziren pixkanaka, baita haiek biltzen eta ehizatzen zituzten gizakiak ere. Eta milaka urtetan lautada zabal horretan bizi izan ziren, Mesolito Aroaren amaiera arte –duela 6.000 urte gutxi gorabehera–, itsasoak egotzi zituen arte.

Itsas maila pixkanaka igo zen mende luzez –bizpahiru metro mendeko– eta gizakiak ederki moldatu ziren aldaketa haietara, hegoalderantz migratuz eta arrantza nahiz ontzigitza teknikak hobetuz. Baina duela 8.000 urte Iparramerikako Agassiz glaziarrek ur masa eskerga

askatu zuen Atlantikoan –itsas mailak 60 cm egin zuen gora bat-batean– eta handik gutxira Norvegiako Stregga izeneko lur azpiko irristatzeak tsunami erraldoia eraman zuen Europako kostaldera. Migrazio askoz bortitza eragin zituen horrek eta, ondorioz, lurraldetasun arazoak hegoalderago bizi ziren gizakiekin. Eta azkenean, gatazka; Britainian, Tévéc uhartean indarrez hildako emakume batzuen hezurak aurkitu dituzte, indarkeria garai haietako seinale. Itsasoak –klima aldaketak, finean– Doggerlandeko biztanleen bizirauteko gaitasuna erabat agortu zuen.

Doggerlandeko arrastoek Mesolito garaia hobeto ezagutzen laguntzen dute eta, halaber, planeta berotzen denean, izotzak urtzen direnean eta itsas mailak gora egiten duenean, zibilizazio bati zer gertatzen zaion erakusten dute. ■



EGIPTOKO ANTZINAROKO MINISTERIOA

Harritzarrak arrastatzeko metodo egiptoarra

Hatnubeko (Egipto) alabastro harrobi zaharreko idazkun batzuetan oinarrituta, Keops faraoiaren garaian harritzarrak nola mugitzen zituzten deskribatu du Frantziako Ekialdeko Arkeologia Institutuko eta Liverpooleko Unibertsitateko arkeologo talde batek.

Arrapala zabal baten alde banatan eskailerak zeuden, eta horie-

tan, zutoin bertikalak sartzeko zuloak. Alabastrozko blokeak erdiko arrapatatik arrastatzen zituzten egurrezko leren bidez, eta zutoin bertikalak polea moduan erabiltzen zituzten blokeei aurrera bultzatzea egiteko, soka sistema baten laguntzaz.

Sistema horri esker, %20 arteko maldak gainditzeko gai ziren. ■



Zuhaitzen koloreak

Otsagabiako basoak, Muskildatik ikusita.



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

ARGAZKIA: JUANMI

Etiketetik abiatua naiz zelkoba kaukasiarri (*Zelkova carpinifolia*) eta astigar txinatarrari (*Acer truncatum*) goizeroko bisita egin ondoren. Gaur, gorri-gorri lehena eta horitik morerainoko kolore ore bigarrena. Ez alferrik ingelesek “purpleblow maple” (kolpe moreko edo gorri mineko astigarra) esaten diote astigar txinatarrari. Etiketetik Pirinioetara inokoko bidea egitekoa dut.

Hotzak biluzten ditu zuhaitzak, eta, soineko hostoen gona kendu orduko, gordean izan duten azpiko gona agertzen da. Gona berdeen azpian kolore ugaritako azpiko gonak, arin eta bizitza laburreko barruko gonak. Hotza non egiten duen seinale da, “hotza gorri, koloreak bizi”. Axitarte igaro orduko makal zorrotzak agertzen dira (*Populus nigra* “*Italica*”) hori-hori. Hortik aurrerako bidea, emozioaren dardarrean, motz, seko motz egin zait. Horia, horia eta horia.

Oritzak ugaztunaren umaldiaren hasiera bezala, paisaia nafarraren horitzak neguarena dakar. Iruñea inguruko erreken aldamenetako makalek bideratu naute Elomendiren iparraldetik Irunberriraino. Herri sarrera janzten du intxaurrondo batek (*Juglans regia*), espezie horri sekula ikusi ez diodan hori garbiz. Inguruetako mahastien (*Vitis vinifera*) eta zainzuridien (*Asparagus officinalis*) paisaia inpresionistek koska ederra goratzen dute gozamen estetikoak.

Hortik atzera ez da koskarik, etengabeko goranzko joera hartu dit gozamenak. Zumar hosto zabala (*Ulmus glabra* subsp. *glabra*) horizta, europar laritza edo alertzeta (*Larix decidua*) laranjakara, lertxuna (*Populus tremula*) horail iluna, basagereziondoa (*Prunus avium*) arrosakara, gingondoa (*Prunus cerasus*) gorri iluna, astigar arrunta (*Acer campestre*) eta frantses

iharra (*Acer monspessulanum*) zein baino zein urreztatua, lizar (*Fraxinus excelsior*) borobila anbar-kolorekoa, mertxikondoa (*Prunus persica*) adarretan behe-tik gora limoikaratik kobreakarainoko sorta ikusgarria osatuz, sahats arrunta (*Salix aurita*) lastokara, ahuntz-sahatsa (*Salix caprea*) larurantz, makal beltza (*Populus nigra*) okre zikindua, haritza (*Quercus robur*) hitsa, zuhandor arrunta (*Cornus sanguinea*) ardokara, gaztainondoa (*Castanea sativa*) beilegia, haltza (*Alnus glutinosa*) zerbeldua, hostazuria (*Sorbus aria*) zuhaila, zurzurria (*Populus alba*) beluria, basaerramua (*Euonymus europaeus*) su bizikoa, arkakaratsa (*Rosa canina*) gorritzeta eta pagoa (*Fagus sylvatica*) sagardo koloretik azafraikararaino. Otsagabian hurritzak (*Corylus avellana*) inbidiatan, hostoen azpiko gonaz finolatu ezinik, lore gerba zintzilarioak dantzatzen ditu, ezko kolorekoak. ■

ZUBIALDE PATXAKAK

Patxaka sagarrondo basatien oinak txertatuz, bertako barietateak berreskuratzen

Juan Gamio: "Ekologikoan ari naiz ama lurra zaintzeko, eta gero berak guri elikagai osasuntsuak eman ahal izateko. Gaur egun erabiltzen diren produktu kimiko denek landareen organismo guztia anulatzen dute".



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: JUAN GAMIOK UTZIA



"Etxean genituenak hondatu zirenean, sagarrondoak erosi nituen mintegi batean. Urte gutxira fruitua ematen hasi zirenean ohartu nitzen ez zela bertako sagar klasea, eta gero, gainera, landareak gaixotu egin zitzaizkidan". Sagarrondoaren inguruan herriko adineko jendearekin hizketan hasi zen orduan Juan Gamio Zubialde Patxakak proiektuaren sortzailea. Egun Beintza-Labaie-
nen martxan duen sagarrondoaren mintegiaren hastapenak izanen ziren. Badu berezitasun bat mintegiak: patxaka sagarrondo basatiaren oina erabiltzen du bertako sagar barietateen txertaketak egiteko.

Sagar basatien bila

Patxaka sagar basatiak mendian, mila metrotik gora ateratzen direla azaldu du Gamiok. Udazkenean mendian sagar

basatiak bildu, horien haziak bereizi, eta erein egiten ditu. "Egun merkatuan nagusi diren sagar landare gehienek oina aldaxketatik sortua dute, eta barietate gehienak kanpotik ekarriak eta genetikoki manipulatuak dira", dio.

Adaxketatik sortutako zuhaitzen eta mendiko sagar basatien arteko desberdintasun handienetakoa da basatiak zain oso handiak dauzkala, eta gaitzen aurka abantaila handiak dituela. "Fruituan ere alde handia dago: zain hain handia dute-nez, lurtean azpirago dauden mineralak xurgatzeko gai dira, eta hori asko nabaritzen da, batez ere usainean".

"Adineko jendearengandik ikasi dut bertako barietateez"

Oin sendoari Euskal Herriko sagar barietateak txertatzen dizkio Gamiok: San Juan sagarra, udazken gozua, negu sa-

gar xuria, erregin sagar horia eta gorria, mokatia, amabirjin sagarra... bertako sagar barietateen aukera zabala daukate zubialdepatxakak.com webguneko katalogoan. "Adineko jendearekin hizketan ikasi dut gehienbat barietate horien inguruan. Herritarrekin eta sagar munduan dabilen jendearekin hazien hartu-emana dut", azaltzen du.

Ekoizpen ekologikoan dihardu Gamiok, zigilu eta guzti: "Ekologikoan ari naiz ama lurra zaintzeko, eta gero berak guri elikagai osasuntsuak eman ahal izateko. Gaur egun erabiltzen diren produktu kimiko denek landareen organismo guztia anulatzen dute". Berak apustua eginga dauka bertako benetako sagarraren esentzia eta purutasuna berreskuratzeke: usainean, zaporean, kalitatean, elikagai-balioetan... denean irabazteko. ■

azoka

NOLA SALDU GAUZAK AZOKAN: Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" botoia. Bost minutuan jar daiteke edozer salgai Interneten, denen eskura.

ARGIA JENDEARENTZAT MUSUTRUK: ARGIAko komunitatearen arteko harremanak indartzeko, besteei zerbait emateko aukera dugu. Ostegunero 10:00etan izaten da txupinazoa: ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gaiak publiko egiten diren unea.

www.argia.eus/azoka • [@argiaAzoka](https://twitter.com/argiaAzoka)

Era guztietako **salgaiak** aukeran: ikus-entzunezkoak, mahai-jolasak, argitalpenak, laminak eta mapak, gorputzarentzakoak, bitxiak, eskulangintza, jantziak...

87
salgai

Egutegia

Egunero orri bat kentzen zaion egutegia. Orri bakoitzak aurreko aldean informazio hau dakar: hilabete osoko ikuspegia, eguzkia noiz irten eta sartzen den, itsasaldiak zein ordutan diren, euskal izendegia eta santutegia.

Atzeko aldean, jakingai hauek dakartza: 100 urteotako Zeruko ARGIA eta ARGIAren azal esanguratsuenen bilduma, bertsoak, umorea, Euskal Herriko etxe eta itsasargiak, estaturik gabeko nazioak, landareak, euskararen erabilera, galdera-erantzun jolasak, esaera zaharrak...



9 euro

34
gai
musutruk

Azaroaren 29an, 10:00etan...
ARGIA Jendearentzat musutruk jarriko ditugu argia.eus/azoka webgunean. Ez da zozketa, azkarren ibiltzen denak eramango ditu!



Bizi Baratzea lamina 39 eta 40

Joseba Larratzek eta Mattinek eginiko lamina originalak. Neurriak: 35 x 50 zm.



Alfonbra

Kolore bizikoa. Neurriak: 1,70 zm X 2,40 zm.

ZUZENDARITZA OSAKETA

Hauteskundeetarako lehen itzulia



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Batzuk datorren udaberrirako aurreikusita dauden hauteskundeetarako kanpainan sartuta daude dagoeneko, zuzenean kanpaina egin edo zeharka. Baina denak topera. Zerrendak egin, hautagaiak aurkeztu, inkestak begiratu... Beste batzuk, berriz, kanpaina gehiegirik gabe deitu eta egin dituzte hauteskundeak.

Zuzendaritza berria aukeratzeko hauteskundeak egin dira lehen aldiz etxe honetan. Ez ehun urteotan zuzendaritza bakarra egon delako, noski; baina orain arte momentuko zuzendaritza joan da bere ustez egokia zen pertsona taldean sartu eta taldea berritzen. Ez zegoen epe-mugarik zehaztuta, eta ia pertsonak krak egin arte jarraitzen zuen zuzendaritzan tiraka, gorputzak aguantatu arte. Hemendik aurrera, ordea, joko-arauak desberdinak izango dira.

Ez da gauetik egunera erabakitako zerbait izan, imajinatuko duzu, irakurle; orain oso modan dauden parte hartze prozesu horietako bat egin da. Hasteko, definitu dira zuzendaritzaren funtzioak. Horren arabera zuzendaritzako kide kopurua. Bost izango dira denera eta momentuak eskatzen badu handituko da zifra hori. Baldintza da ARGIA osatzen duten idazkaritza, erredakzio eta salmenta sekzioak or-

dezkatuta egotea, eta zuzendaritzako parte izateko enpresako bazkide izan beharra dago. Errotazio sistema baten bidez pixkanaka sekzio bakoitzeko kide guztiak momenturen batean zuzendaritzan egotea da asmoa, eta bost urterako hartuko da kargua. Hauteskundeak, baina, ez dira bost urtean behin izango, urtero baizik; errotazio-sistemaren bidez zuzendaritza urtero joango baita kideren bat aldatzen (beti ere sekzio guztietako jendea zuzendaritzan ordezkatuta dagoela bermatuz). Egin berri diren "hauteskundeetan" hautatutako bi kideak datorren urtaririlean sartuko dira zuzendaritzan, eta bi kidek utziko diote ardura horri.

Aldaketa honek eskatzen du zuzendaritzako ardurak lanaldiaren barruan eramateko modukoak izatea, ez gainkarga handiegia izatea, bestela, bizi-tzako egoeraren arabera, langile denek ezingo bailukete zuzendaritza osatu. Azken urteetan lantaldeen bidez egin da lehen zuzendaritzakoak ziren ardura eta erabakien banaketa, horizontal-tzea.

Zer lortuko da lan-taldeko kide gehienak edo denak zuzendaritzatik pasatuta? Ekipo formatu eta sendoago bat, enpresa horizontalago bat, ikuspegi zabalagoa... Hori behintzat gure esku dago. ■

ARGIAk mendeurrena ospatuko du 2019an herritarren esku jarritz 100 urteko ondarea

Mendea beteko du ARGIAk datorren urtean eta data esanguratsu hori baliatuko du zenbaki guztiak eta argazki artxibo historikoa digitalizatzeko. Mendeurrenaren harira hurrengo urtean ekimen ugari egingo ditu.

Euskal kazeta dekanoa da ARGIA, 100 urte bete ditu, eta mendeurren horren inguruan egin nahi diren ekimenak eta irudia aurkezteko prentsaurrekoa eskaini dute Donostian ARGIAko kideek, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari Estibalitz Alkorta la-gunduta.

1919an Zeruko Argia izenarekin aldizkari erlijioso gisa sortua eta ondoren Donostiako Argia-ren informazio orokorreko astekariaren izaera bereganaturik, ehun urteotan euskal kazetaritza modernoa garatzeko izan duen paper garrantzitsua nabarmendu dute prentsaurrean: "Lokarri bat izan da bere inguruan bildu izan diren euskal sortzaile, kultur gile eta kazetari ontzat".

Denera 2.600 zenbakitik gora eta dozenaka mila orrialde argitaratu ditu euskara hutsean denbora honetan. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin hasitako elkarlanari esker zenbaki horiek guztiak digitalizatzeko proiektuari ekin dio ARGIAk, webgunean kontsultagai jartzeko helburuz.

Horrez gain, argazki artxibo historikoa ere digitalizatu eta denen eskura jartzeko prozesua martxan da. Azken mende erdiko gertaera sozial eta politikoak islatzen dituzten milaka argazki dira, asko euskalgintzari eta herri mugimenduei lotuak.

Mendeurrenari begira, hurrengo urtea bere irakurleei eskainitako "opari" batekin hasiko du ARGIAk: 2019ko lehen zenbakia berezia izango da, edukiz, diseinuz baita luzeraz ere. Bestalde, hilabetez hilabete ekitaldiak eta mahai-inguruak egingo dira lurralde guztietan.

ARGIAk mendea egin du, eta berarekin euskal prentsak ere bai. Baliatu dezagun euskal kazetaritzak bere osotasunean zailtasun askoren gainetik egindako ibilbidea ospatu eta dagokion aitortza egiteko.



DANI BLANCO

Bertsolaritzaren genealogia feminista, infografia batean

Emakume bertsolari garaikideen genealogia eraiki dute infografia batean Ainhoa Agirreazaldegi, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Ane Labaka bertsolariek eta Txakur Gorria kolektiboko Malen Amenabar eta Mariñe Arbeok. Mugarriz mugarri, bide kolektiboaren bilakaera modu artistikoan islatu dute, bertsolari gazteek hutsetik hastearen sentipenarekin, “betiko harriarekin” estropezu egin ez dezaten.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Lau bertsolari hauek elkartu ziren Uxue Alberdiren proposamenaren harira. Bertsolaritzan bakoitzak izandako bizi-penak eta erreferentziak mahairatzeari ekin zioten. Hustuketa horrek berak agerian jartzen du infografia honen premia, Artetxek azaldu digunez: “Bakoitza hasten zenean bere bizitzako erreferentziak, izenak eta mugarriak aipatzen, besteok ez genituen ezagutu ere egiten. Ane Labaka gazteagoa delako, ni Iparaldekoa naizelako, Uxue Alberdi literatur mundutik etorria zelako... Hain denbora gutxian hain jende gertukoaren artean ez baditugu erreferentziak konpartitzen... horrek berak ere agerian jartzen zuen genealogia baten premia. Genealogia guztiak dira eraikitakoak, eta guk ere gurea eraikitzeari ekin genion”. Lau bertsolari hauek beren bizipen eta ezagutzetatik oinarritzko eskema osatutakoan, ariketa ahalik gehien zabaltzeko beharra sentitu zuten, eta galdetegi bat bidali zieten ahalik eta emakume bertsolari eta bertsozale gehienei. 50 erantzunetik gora jasota osatu zuten bilketa eta kontraste lana.

Harriz harri, kolektiboan egindako bidea

Infografiaren erdialdean ikusiko duguna sare handi bat da. Artetxek azaldu du: “Gure bizipenen artean, garrantzitsuenetakoak kolektibotasunean bizi izandako prozesuak dira. Prozesu kolektibo horiek islatzeko mugarri bila ibili gara: data, pertsona, ekintza zehatz bila”. Labakak zera zehaztu du: “Hautua izan da ahalik eta erreferentzia pertsonal gutxien sartzea”.

Infografiak ez du irakurketa lineal eta hierarkikorik planteatzen. Mugarri horietako bakoitza biribil batek irudikatzen du. Harriak dira, baina ez batere zurrin eta pisuak, gardenak baizik. Harriek herri honetan joko handia ematen dute irakurketetarako, eta Artetxek umorez gehitu du beste hau: “Lujanbiok azken txapelketako agurrean ‘errekarri’ bota zuen eta horrekin dena justifikatu zigun”. Labakak seinatu du beste xehetasun hau: “Txirrita ere hor jarri dugu, ‘bera eroriko den, ez hakion bultz’ bertso ezagunaren egokitzapenakin, gauzak bere kasa aldatuko

direla esaten diguten mezuen isla moduan. Aldiz, ondoan emakumeak harri handiei bultzaka ageri dira”.

Infografiak biltzen dituen mugarriak alor anitzetakoak dira: plazari lotutako mugarriak dira batzuk, sarea josteari lotutakoak besteak, komunikabideak, diskurtsoak, udalekuak... “denak eragiten digu eta denean eragin dugu kolektiboki” adierazi du Artetxek.

Infografia zerekin bukatu? Gaur egunera etorrita, zer islatu? Hori izan dute dilema nagusietakoa. “Aniztasuna, leherketa irudikatu nahi izan dugu. Eta ez dela ezer itxia. Hiru punturekin bukatzen da, ‘definizio berrietarantz...’ hitzarekin”.

Bertsolaritza eta feminismoa gurutzatzen dituen irakurketa

Infografiaren goiko aldean ezkerretara, lehen irudia oholta ertzean kanpora begira dagoen neskati batena da. Bertsolaritza eta feminismoaren arteko harremana irudikatzen du, Artetxek azaldu duenez: “Mugimendu feminista 1970eko hamarkadan lanean ari zen, eta kanpotik

bada ere, bazuen bere eragina bertsolaritzan. Kristina Mardarasek bere burua feministatzat zuen". Bertsolaritzak eta feminismoak elkarrekin izandako ibilbidea islatzen du infografiak. Artetxe: "Genero sistemak antropologian lantzen zituen feminismoak, eta bertsolaritzaren genero irakurketa akademiatik egin zen. Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi- ren hitzaldiek eta gogoetek ekarri zuten marko teorikoa bertso mundura: lehen aldiz 'bertsolaritza' eta 'feminismoa' hitzak batera esan ziren, eta marko horrek tresnak eman zituen genero sistema eta bertsolaritza nola batzen diren ikusteko, akademiatik kanpo, eta mugimendu feministarekiko kontaktu zuzenik gabe ere. Horri esker hasi gara begiratzen zer praktika feminista egiten diren beste eremu batzuetan, horietako batzuk bertsotara ekartzeko: hortik sortu ziren *Ez da kasualitatea* saio feministak, eremu ez mistoak... generoaren lanketan behar-beharrezko tresnak. Sarea josteak eta jakintza kolektiboa partekatzeak ekarri du hau guztia. Bizipenak eta jakintzak partekatzen ez baditugu, behin eta berri- rrez harri berarekin trabatzeko arriskua ikusten dut. Infografia hau horretarako tresna ere bada".

Infografia ere kolektiboan eraikitakoa

Labakak elkarlana azpimarratu du: "Orain arte, norberak egindako ikerketa edo artikuluak konpartitu izan ditugu besteekin, baina honakoa beste zerbait izan da, zerotik elkarrekin egindakoa baita. Talde bat elkartu gara astero, eta bidean trinkotu egin da. Bide horrek asko eman digu".

Lau bertsolariak beren hustuketa egin, eta inkesta bidez beste 50 emaku-

meren jakintzarekin eske- ma osatuta, Txakur Gorria kolektiboarengana jo zu- ten, haiekin elkarlanean diseinu faseari ekiteko. Mariñe Arbeok adierazi du proiektuaren erdial- dean diseinu ikuspegia txertatu izanaren ondo- rioz, infografiak xeheta- sun pila irabazi dituela: "Elkarrekin egin dugu kontzeptuak iruditara pasatzeko bidea". Artetxek umore kolpea atera du: "Hauek beste era batera pentsatzen dute. Gure es- kema birformulatu behar izan genuen, gurea oso karratua zen. Kolektiboan eta iruditan pentsatzea erronka handia izan da". Labakak horrela azaldu du ariketa: "Kanpo uz- ten ikasi behar izan dugu. Hasieran dena sartu nahi genuen, munduko bertso feminista guztiak, bakoitzarentzat mu- garri izan zen guztia... hori izan da arike- ta, ulertzea gauza bakarra jarrita, atzean dagoen guztia adierazten duela".

Arbeok *collagea* hautatu dutela azal- du du: "Esan nahi genuen kontzeptua zer irudi bidez adierazi pentsatzen ge- nuen eta argazki zaharrak bilatzen ni- tuen. Eta horrekin *collagea* sortu".

Genealogia anitzak sortzeko gonbidapena

Artetxek adierazi du dilema handiak izan dituztela, "erabaki guztiak baitira politikoak. Ardura ere sentitzen duzu. Historia guztia eraikuntza bat den neu-



rrian, hau ere hala da. Hau genealogia bat eta infografia bat da, beste hama- bost egingo balira, fenomeno. Ideala litzateke memoria kolektibo ariketa hau ez guk bakarrik egitea. Hamaika taldetan egitea, eta horiek konpartitzea, irakurketa ezberdinak egitea. Merezi du tokian tokikoak ere egitea, eta hamaika formatan, izan liburu, film...". Beste gon- bidapen bat luzatuz biribildu du elka- rrizketa Labakak: "Ikerketa bultzatzeko ere balio dezala, mugarri horietako ba- koitzaren atzean egon litezke hamaika ikergai. Orain arte bildu dugun guztia oso pozik jarriko dugu behar duenaren eskura". ■

Taldekako Xilaba
2018ko Finalerdiak

ARGIA

EUSKAL Elkargoa

eke-icb

A MULTXOKO LEHEN TALDEA / B MULTXOKO LEHEN TALDEA

Azaroak 23 / 20:00etan (afaria) - 22:30ean (saioa).

Suhuskunen Ortzaizeko ikastolak antolaturik, **Bertso afaria.**

C MULTXOKO LEHEN TALDEA / MULTXOETAKO 2.HOBERENA

Azaroak 24, 19:00tan

Baionan Zizpa gaztetxeak antolaturik, **Talo Bertso besta**

DATUAK

Artetxe: "Infografia lantzen ari ginen bitartean ezagutu dira Har-kaitz Zubirik egindako ikerketa soziologikoaren emaitzak, eta generoari buruzko datuak sartu ditugu infografian".



EPAILEAK

Artetxe: "Bertso txapelketako epaileak dira, argazki zahar batetik hartutakoak. Horren bidez adierazi dugu kalitatearen debatea, nola kanonak baldintzatzen duen zer den 'ona' eta zer 'txarra'. Eta zerk baldintzatzen du kanona? Kantitateak, iruditeriak, legitimitatearen sentsazioak... Eta zer da bertsolari legitimoa? Eztabaida horiek infografiara eraman ditugu epaileak hor jarrita. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena".



LASTARBIDEA

Zer esan nahi du "lasterbideak"? Labaka: "Bertsolaritzan parekidetasunean dena eginda dagoela diotenek hartzen dutena da". Artetxe: "Juxtu bestaldean harri handi askori bultzaka ari dira emakumeak, eta lasterbidean dauden hauek, aldiz, kaniketan jolasean ari dira".



- *Berria, Jakin, Lanku* eta *ARGIA* elkarlanean banaketan hartu dute parte proiektuan. Durangoko Azokan hauen postuetan erosi daiteke infografia 6 euroan, eta internetez hauen webguneetan, 8 euroan (bidalketa gastua barne). Infografiaren neurriak: 59,4 zm X 85,1 zm.

FINALAURREKOA

IGORRE

Azaroaren 25ean, domeka, 17:00etan, udal kiroldegian

www.bertsosare.eus/bizkaikotxapelketa

www.bertsosarrerak.eus

bbt18

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2018

Berriet Ugarteitxe Ostolaza, Eneko Abasolo Txabarti 'Abasas', Mamen Arriola 'Lamiaga', Nerea Ibarzabal Salgi, Oihana Bartra Arenas eta Oritza Enbeita Maguregi

Artzaintza

Bizkaia

bbk

ARGIA

AIMAR URIBESALGO ("POBRESIAK"-EKO KIDEA)

"POEMA BATEK MIN EMAN BEHAR DU"



Gaztetxeetan ikusiko dituzu batez ere. Bestela tabernetan, jai-guneetan, herri mugimenduren baten topaketetan, baina literatur zirkuitu ofizialetatik kanpo, betiere. Badira lau urte Aimar eta Eñaut Uribesalgo anaiak *Pobresiak* emanaldiarekin hasi zirela. Fanzine eta disko batean bildu zituzten poemak hasieran. Geroztikakoen berri izateko, zuzenekoetara joatea beste modurik ez dago.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

“2014ko negua da eta ez gara guztiz zoriontsuak” esanez hasten duzue *Zoria* poema, fanzineko lehenbizikoa. Lau urte igaro dira ordutik. Ezer aldatu al da?

Antzera jarraitzen du guztiak. Honezkerro, inoiz ez gara guztiz zoriontsuak izango, ezta guztiz zoritxarrekoak ere –hori esanez amaitzen da poema–, salbu eta inoiz geure buruaz beste egiteko zorian bagaude. Gauza bat areagotu da ordutik: derrigor zoriontsu izan behar hori. Presio izugarria nabari da.

Eta zuen emanaldiak izan al du aldaketarik lau urteotan?

Gauza batzuetan bai, besteetan ez hainbeste. Musikalki hobetu dugu zer edo zer, anaiak gitarra jotzen ikasi duelako. Estetikaren aldetik, antzera jarraitzen dugu: bera militar sobietar itxurarekin igotzen da eszenatokira eta ni, aldiz, paristarrez mozorrotuta, poeta bohemio bat banintz bezala. Poemak ere aldatu dira, noski. Berri asko sartu ditugu emanaldian. Orain irakurtzen ditugun gehienak ez daude fanzinean sartuta.

“Ez dut poesia askorik jan, baina kaka egitean usain txarra ere egon dadila, mesedez”, diozue *Poesia komunetik behera* poeman.

Ez naiz inoiz izan poesia irakurlea. Orain ere ez. Jorge Oteizak zioen arte diziplina batean jarduteko ezinbestekoa dela aurrez besteek egin dutenaren berri izatea, gero norberak horren gainean eraikitze edo suntsitzeko. Ez da nire kasua, eta Oteiza haserre neukake, ziur asko. Nik saiakerara jo izan du beti. Zerbait gustatzekotan, gustatzen zaizkit poemei ukitu punkia ematen dieten autoreak. Bukowskik, kasurako, dotore asko kontatzen ditu kontu zakarrak. Poema batek min eman behar du, errailetan zerbait sentiarazi behar dizu. Azaleratu behar dizkizu zure kontraesanak. Atzo batek esan zidan: “Harri-garria duk, hi. Denok kritikatzaren aritu haiz oholatzatik, eta hala ere gustatu egin zaiguk, txalo jotzen genian”. Hori da lortu nahi duguna, zerbait ukitzea.

Dena dela, ez nuke esango eztena kanpora bakarrik botatzen duzuenik. Poema guztiak zeharkatzen ditu tonu autokritiko nabarmen samar batek.

Nire eta publikoaren arteko banaketa zera da: nik errezitatzen dudala, eta beraien entzuten dutela. Hortik kanpora,

antzerakoak gara. Antzerako hausnarketak egin ditugu, antzerako mugimenduetan gabiltza, antzeko praktikak ditugu... Zerbait esaten dudanean, denoi buruzko zerbait esaten dut. Gu entzutera datorrenak ez du tximeletei edo loreei buruzko gauza askorik entzungo.

Horien orde, “patriarkatua”, “kapitalismoa”, “klase-ertaina”...

Ibiltzen garen giroetako ohiko kontzeptuak dira. Hori da gure esparrua, eta hortik datoz gu entzutera gerturatzen direnak. Emanaldi asko egin ditugu, eta ohartzen gara *feeling* handiena publiko mota horrekin lortzen dugula: herri mugimenduetako jendea, aldaketa sozialekin sentsiblea, parte hartzean eta horizontaltasunean sinesten duena, feminista, nahiko ikasia, unibertsitatetik pasatakoa bada hobe –tira, ingeniaria bada agian ez–, “klase ertainekoa” –komatxo artean, kontzeptu despistagarria da eta–, saiakera liburu batzuk irakurri dituen, euskalduna, batez ere zuria, erosketa ahalmena duena, furgoneteroa, tatuaiaduna eta piercingduna, ez-kertiarrak...

» **“Areagotu egin da derrigor zoriontsu izan behar hori, presio izugarria nabari da”**

Literaturzalea?

Inkesta bat eginez gero, nik uste literaturzaleak gutxiengo lirakeela. Behin emanaldi bat eman genuen Oñatiko Kultur Etxean, liburutegian bertan. Etorri ziren gehienak –ezagun batzuk salbuan– andreak ziren. Eta nik uste andre haiek poesia beste zerbaitekin lotzen dutela, ez gure hizkera gordin eta azido honekin... eta, tira, zer esaten ari nintzen?

Literaturzale gutxi dela zuen jarraitzaileen artean.

Tira, literatura ulertuta batez ere nobela, poesia eta gauza horiek bezala. Aldiz, saiakerarik irakurri ez duen batek, hausnarketa politiko-sozial askorik

egiten ez duen batek, ez gaitu askorik ulertuko.

Literatur munduko jaialdi eta bestelako ekitaldietan ez zaituztet ikusi izan, horregatik aipatzen nizan.

Egia da, ez nuen sekula pentsatu. Gu aritzen gara gaztetxeetan, tabernetan, jaietan, txosnetan, topaketaren batean... baina literatur jaialdietatik ez digute deitu. Ez dakit zergatik, agian ez dugu enkajatzen.

Fanzinea gainbegiratzuz gero, ageri dira izen gehiago ere: Kropotkin, Stalin, Foucault... Bistakoa da tradizio komunistaren eragina.

Bai, besteak beste. Batxillergoan sartzen zara mugimenduetan, irakurtzen dituzu mila mezu kapitalismoaren kontra, ez duzu ezer ulertzen, baina badakizu alternatibak badaudela, izan komunistak, izan anarkistak... Ohartzen nintzen jende bat ari zela hau dena aldatzeko proposamenak egiten, eta izugarrizko gogoa nuen mundu horiek deskubritzeko. Marxisten liburu klasikoak irakurtzen hasi nintzen, anarkistenak... Gero, pixkanaka, beste gauza batzuk ere bai: soziologiako kontuak, historia, filosofia, ekonomia... horretaz elikatu naiz. Oso tipo arrazionala naiz, eta mundu hori da nire mundua. Aldiz, hortik kanpo galdu samar sentitu ohi naiz. Sentimendu kontuetan edo giza harremanei dago kienean, adibidez, sekulako gabeziak ditut. *The Big Bang Theory*-ko Sheldon Cooperren antza pixka bat daukat.

Ah bai?

Tira, bikoteak esaten dit hori. Sheldon nahiko muturrekoa da, baina bai, badi-tut bere ukitu batzuk. Azkenaldian saiatzen ari naiz hain arrazionala izan beharrean sentimenduak eta gauza horiek kontuan hartzen. Bihotzari kasu egiten, eta abar. Gaurkoa bezalako jardunaldietara etorri izan naizenetan [Lurralde Askeak antolatutako akanpadaz ari da], jarduera intelektualetara joan ohi nintzen beti: hitzaldietara, mahai-inguruetara... Orain, aldiz, ibiltzen naiz sukaldeko lana egiten, janaria zerbitzatzen eta halako gauzetan. Gauza praktikoetarako oso txarra naiz, baita egunerokotasunean ere. Gizona naiz, eta noski, zentzua dauka. Horretan nabil, eta bikotea asko ari zait laguntzen. Talka bidez, gatazka bidez... asko ikasten da.

» “Arteak badu bere garrantzia, baina ez da iraultzarako funtsezkoa”

Zuen emanaldietan komunitate bat elkartzen da beren eguneroko praktikei eta balioei buruzko poemak entzutera. Izan dezake zer edo zer liturgiatic?

Kontraesan bat dugu, halako emanaldi guztiek duten kontraesan bera: *oholtzismoa*. Gu oholtza gainean zerbait egiten, eta gainontzekoak begira. Gu aktibo, eta gehiengoa pasibo, txalo eta barre egitera mugatuz. Badira ereduak guztion parte hartzea bermatzen dutenak, eta formatua birpentsatzea ez legoke gaizki. Tarteka sortzen dira une ederrak, publikoarekin hartu-eman dugu-nean. Atzo, une batean, norbaitek esan zuen “*hoi, hoi, hoi!*” –Hori, hori, hori!–. eta erantzun nuen “ikusten dut publikoan skinhead-ak ere badaudela... lasai, gu skinhead-en alde gaude. Edo ez”. Eta jendea jokoz kanpo gelditu zen. Gustatzen zaigu entzuleak probokatzea. Adibidez, gure poema batek zalantzan jartzen du txalo egitearen kontzeptua bera. Txaloak gutxiesten ditu, eta bukatzen da esanez “*ea orain ausartzen zareten txalo egiten*”. Entzuleak zirikatzen ditugu, berez egitea tokatzen zaien hori zalantzan jar dezaten.

Poesia mailu bat da?

Ez dizut ezetz esango, baina diskurtso hori egiten dutenen artean badago egoaren osagai garrantzitsu bat. Musikarekin alderatuz: Non Servium-ekoek elkarrizketa batean zioten: “Egiten du-



Lurralde Askeak antolatutako Iraultza Txikien Akanpadan hitz egin dugu Uribesalgorekin.

guna borrokarako tresna bat da”. Sekulako tontakeria iruditzen zait halakoak esatea. Gustatzen zaie musika egitea, atzetik jendetza daukate kristorenak direla esanez, eta kristorenak sentitzeaz gain, iruditzen zaie hori eginez militatzen ari direla, “begira gu zer ari garen aportatzen”. Ez dut esango artistek ez dutenik ezertarako balio, baina askok esajeratu egiten dute. Arteak badu bere garrantzia, baina ez da iraultzarako funtsezkoa. Garrantzia beste toki batzuetan dago. Batez ere, antolamenduan. Musika eta poesia erradikalararekin bakarrik ez zoaz inora.

Artista asko beren buruari sinetsarazitako pelikulan bizi direla diozu?

Begira, niri punkak asko eragin dit, asko entzuten dut oraindik ere. Baina dena dago egoarekin lotuta. Denok gaude beldurrez josita, denoi gustatzen zaigu identitate bat edukitzea, kolektibo baten parte izatea. Orduan, jende bat sartzen da punk identitate horretan, baina ezerk ez du bermatzen horregatik autokritikoa denik, benetako aldaketarik egingo duenik, pertsonalki garatuko denik...

Punkaren zati handi bat kontserbadore bihurtu da, bai edukian eta bai egiteko moduan. Erreparatzen duzu pixka bat, eta pizten da galdera: “ze zentzu dauka egun hori egiteak?”. Hor dabilen jendea gustura dabilela horretan. Gainera, sarri oso matxoa izaten da dena. Batzuk eszenatokian zarata egiten, besteak behean, gure artean ezin komunikatu, eta bitartean drogatu. Eredu horretan badago zer hausnartua.

Irakurri dizuet gehien kontsumitzen den kulturak errealitatea ezkututzen duela.

Nagusi diren filmek, literaturak, antzezlanek, poesiak, musikak... Ehuneko handi batek balio jakin batzuk erreproduzitzen ditu, egungo gizarte eredu nagusiarekin bat datozenak. Baina tira, oraingo formula errepikatzen jarraitzen badugu, agian guri ere iritsiko zaigu une bat gure apustua kontserbadore bihurtuko dena. Hemendik 30 urtera kazetari belaunaldi berri batek kritikatuko gaitu, kontserbadore garela esanez. Baina oraindik ez gaude hor. Beraz, lasai, ez da ezer pasatzen, dena ondo doa (barrez). ■

ARGIA

943 371 545

publiz@argia.eus

www.argia.eus/tarifak

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen



JOAQUIM RUYRA eta SANSOMENDI eskolen hezkuntza-proiektuak ezagutzeko jardunaldia

Azaroaren 24an DONOSTIAko EHUn, goizez

Kataluniako ingurunerik pobre eta gatazkatsuenetako batean dago Joaquim Ruyra eskola publikoa. **ikasleen % 92k jatorri atzeritarra** dute eta ikasleen % 40k ez dute ikasturte osoa bertan egiten. Aurreiritzi guztien kontrara, bertako ikasleek kanpo ebaluazioetan ematen dituzten **emaitzak Kataluniako batez bestekoaren oso gainetik** daude. Eta, baita "elitekotzat" jotzen diren ikastetxe askoren emaitzen gainetik ere.

- Zer dago emaitza on horien atzean?
- Zein dira arrakastarako gakoak?

Gasteizko Sansomendi ikastetxeko ikas komunitateko kideek *Ausarten Kluba* eta gatazken kudeaketarako eredu dialogikoa aurkeztuko dute.

Informazioa eta matrikula www.hikhasi.eus helbidean

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ingurukoak babesten



Xabier Etxaniz Erle

Omar lagunaren hamsterra akrobazia-istripu batean hil ondoren Ane triste jarri zen, beldurra sentitu zuen eta Pit bere hamsterrari “gauza bera gerta ez zekion, lanari ekin” zion. Ideia horretatik abiatzen da Txabi Arnalek eta Edu Zelaietak idatzitako istorioa. Eta hasieran bezala (“hiru gauza gertatu ziren Aneren bizitzan”), egitura errepikakorren bidez Aneren bizitzan jazotakoak biltzen dira *Torlojuak* kontakizunean. Lehenbizi eskolan ditugu hiru gertakari xeble, gero etxeko atarian beste hiru; azkenik etxean hiru tresna agertu ziren hondatuta. Eskolan eta atarian izandako bileren ondoren Aneren gurasoek susmatzen dute gertakari guztien erantzulea oso hurbil dutela... eta hala dela deskubritzen dute neskatoak guztia aitortzen dienean. Ane torlojuak biltzen ari da makina bat egiteko, gurasoak babestuko dituen makina bat eta horrela hauek ez deza-ten amaitu Omarren hamsterrak bezala.

Irudimen handia eta umorea erabili dituzte egileek obran zehar gertatzen diren pasadizo guztiak kontatzeko, misterio gero eta handiagoa dugu gertakariak aurrera egin ahala, eta irakurlea ohartuko da torlojuak direla eskolako eskeletoa, pianoa, mapa, atariko leihoa, auzokoaren bizikleta eta abarri falta zaizkien piezak.

Ipuinaren egitura errepikakorrak irakurketa errazten duen bezala


**Torlojuak**

TXABI ARNAL
EDU ZELAIETA

Ilustrazioak: Javi Kintana.
Elkar, 2018.
45 orrialde.
Haurrentzat.

*Edu Zelaieta Anta idazlea
(Gasteiz, 1973).*

*Txabi Arnal irakaslea eta
idazlea (Ermua 1967).*



astundu egiten du narrazioa, izan ere gertakari asko biltzen dira, eta antzekoak, oso orrialde kopuru txikian. Egia da, bestalde, ilustrazio errealistek lagundu egiten dutela irakurketan eta ulermenean, zenbait kasutan testuak dioenaz haratago eramaten baikaitu ilustrazioaren mezuak, eta torlojuen pista batez ere ilustrazioetatik jasoko du irakurleak.

Idazleek erabilitako hizkera jasoa iruditu zait irakurleak kontuan izanik baina ulergarria da testuen laburrak eta ilustrazioak lagunduta.

Umorea aipatu dugu lehenago eta, egia esan, kontakizunak horixe lortzen du, irakurlea irribarrez uztea; txantxa, burutapen eta txiste batzuen bilketa dugu narrazioa... edo, serioago jarrita, nola erreakzioa dezakeen haur batek heriotzaren aurrean; liburua, une honetatik aurrera irakurle bakoitzarena baita, baita haren kontakizuna interpretatzea, barre egitea edo serio jartzea ere. ■

» DISKOA

Antipodetatik, beste modu batera



Joxi Ubeda Goikoetxea

Taldekiek diotenez, EraBatera ia nahi gabe sorturiko taldea da. Gaizka Salazar Gatibu taldeko bateria jotzaileak martxan jarri du, eta bere intimitatetik sorturiko egitasmoa da. Mimo handiz landutako zenbait abesti bazituen, bere bizitzako garai zail bati aurre egiteko sortuak. Aita galdu zuen orain dela bost urte, eta horren ondorioz pare bat urte noraezean ibili zela aitortu du: "Antipodetan sentitzen nintzen, amatatuta eta burua beste toki batean nuela; hala hasi nintzen kantak idazten eta konposatzen".

Beraz, dolua, samina da EraBatera taldearen eta bere lehen diskoaren abiapuntua. Mina baretu asmoz Gaizkak terapia gisa idatzi zituen kantak plazaratzeko beharra sentitzen baitzuen. Proiektua aurrera ateratzeko, eskarmentu handiko musikariak bildu ditu: Gatibu taldean berarekin aritzen den Mikel Caballero baxu jotzailea, Ken Zazpi taldeko Beñat Serna gitarrista eta Willis Drummond taldeko Jurgi Ekiza, abeslari gisa. Halaber, kantak grabatzeko garaian musikari hauen laguntza estimagarria izan dute: Eñaut Gaztañaga (programazioak), Juan Alberto Batiz (gitarrak), Ander Erzilla (saxoa) eta Akatz taldeko haize atala.

Pop-rock kutsuko kanta politikak entzun daitezke diskoan, ongi apainduak, indartsuak, tarteka power pop edo hard rock ukitu batzuekin. Moldaketak, koruak eta ekoizpena ederki eginak daude. Nahiz eta gaur egun zaila den ezer berririk asmatzea, eta taldeak erabili dituen osagaiak ezagunak diren, beren gisara erabili dituzte, beste era batera, eta emaitza interesgarria da.

Antipodetan

ERABATERA

Autoekoizpena, 2018



Kanten atzetik istorio pertsonal bat dagoela nabari da, min pertsonal bat. Sentipenak, kezak, desioak ageri dira kantetan, harremanei buruz mintzo dira. Gaizkak berak idatzi ditu zazpi kantaren hitzak, eta Iker Olabarrieta adiskideak eta bertsolariak lagundu dio diskoan dauden beste bi kanten hitzak idazten.

Hurrengo hilabeteetan, EraBatera taldeak jendaurreko emanaldietan aurkeztuko du bere lehen diskoa, Josu Aginagaren (gitarra) eta Miguel Moyanoren (sintetizadoreak eta gitarra) laguntzarekin. Besteak beste, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Baionan, azaroan. ■

Gaizka Salazar, Mikel Caballero, Beñat Serna eta Jurgi Ekizak osatzen dute EraBatera taldea.





Beltzaren kolore guztiak



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

ARGAZKIA: DOS POR DOS

Ez da askotan gertatzen Gasteizko Gaztetxean kontzertu baten sarrera guztiak saltzea; are gutxiago kontzertua izan baino egun batzuk lehenago. Salbuespenak badaude baina: No Regret eta Anestesia. Eta errudun nagusiak, No Regret-ek ere kuadrilatxoa eraman zuen arren, zarauztarrak izan ziren. Ez daramatzate alferrik 30 urte taula gainean, tarteka isildu badira ere, jakina den moduan.

30 urte doinu zakarren entzule ez ohi-tuarentzat musika bera egiten. Baina, behin Anariri entzun nion berari Maddonnaren disko guztiak berdinak egiten zitzaizkiola, ez zizkiolako azaleko entzunaldi batzuk baino gehiago eskaini, ez zelako zalea. Beste aldean dago Mikel Kazalisek kontzertu ondorenean kontatu zidana: hasieretako zale batzuei Anestesiaren bigarren maketa ahula iruditu zitzaizela, “tupatupa” gutxi zegoelako; aldaketa handiegia egin omen zuten.

Belarriak zorroztu, eta Anestesiaren lanetan beltz asko nabaritzen dira;

hardcore, grindcore, crustcore, trash, metal eta beste hainbat abizen jarri ahal zaizkio Kazalis-Beloki-Aizpurua oinarriari. Zuririk ez, ezta izpirik ere. Ezta zurikeriarik ere hitzetan: gorrotoa, haserre, mina, oldarkortasuna, garraztasuna, nazka ta beste hainbat giza sentimendu ez positibo hartzen ditu ahotan Ibon Aizpurua abeslari/oihulariak.

Horrexen erakustaldia, hitzaren zentzu denetan, izan zen Gaztetxe leporaino betean ikusi ahal izan genuena. Ordu eta erdi eskasean, bira hau egiteko aitzakia nagusia den *Gorrotoaren Ahotza* lana osorik jo zuten. Eta gero, geroak: zortzi diskoetako kantuak aletu zituzten zaleon gozamenerako. Batari *Drogak eta Biolentziak*, besteari *Ultra-komunikatzenek*, eta hirugarren bati *Erantzunek* laztuko zion ilea. Lehenengo kantutik aurreneko ilaretan saltoka zebiltzane, azkenetako 450 lagunok batu gintzaizkien pogo erraldoi moduko batean.

ANESTESIA ETA NO REGRET

Noiz: Urriaren 20an.

Non: Gasteizko Gaztetxean.

Gorrotoaren Ahotza 25 urte birako hurrengo kontzertuak:

Abenduaren 1ean Iruñean

Abenduaren 8an Durangon

Urtarrilaren 19an Miarritzen

Nabari zen festa giroa, ospakizunera-ko gogo. Eta halaxe azpimarratu zuen Kazalisek behin eta berriz mikrofototik: euren 30. urteurrena, diskoaren 25.a, eta Gaztetxearen beraren, Hala Bediren, Errekaleorren eta Auzolana Pilotalekuaren urteurrenak batera ospatzeko festa zela hura. Eta ospatu genuen, majo egin ere.

No Regret taldekoak aurretik aritu ziren, bigarren plateraren gose zeudenei apetitua baretzen. Eta lortu zutelakoan nago. Bi lan dituzte kalean, eta eurek ere beltz jotzen dute, Anestesiak baino metal kutsu handiagoz, nire irudipenerako, baina hardcore abizeneko. Ez dira alferrik gero eta fruitu gehiago ematen ari den Gasteiz Hard Core Crew-ko kide.

Kontzertua amaitu zenerako, elastiko gehienak (beltz klase guztietakoak) blai eginda zeuden. Muinoko Hotsakeko lagunek, ordea, musika aukeraketa ezin hobea egin zuten segidarako, eta nahi izan zuenak hantxe jarraitu zuen. Hori, baina, ez dizuet kontatuko. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Arriaga antzokia

① GIZASEME		DAGO HEGAZTIEN GOROTZ	② BEGIEN ITXI-IREKIA	EMAKU- MEZKO IZENA MAGNE- SIOAREN IKURRA	③	BANAKA ASMOAK	MINTZAK BOKALIK GA- BEKO ARDI
					OPARO ABARASKA, ABAO		
501 ERROMATAR ZENBAKIZ ASKO, ANITZ		④ ETIKARI DAGOKIONA		MENDE- KOTASUNA ERAGITEN DUENA KUOTA OR- DAINDU			KILOA DROGA MOTA
APAR MANIKEIS- MOAREN JARRAITZAI- LEA			ELEMENTU KIMIKO NAFARROAKO IBAIA				BARRE EGINEZ
				BOKAL ERRE- PIKATUTA JARDUN, ERAGON		BERUNAREN IKURRA AHAL DEN NEURRIAN	
ROENTGEN GIPUZKOAKO HERRIA	KANTATZEN, KANTARI UHARTEAK				PORTUA, NASA ZENBATEAN, ZENBAT DIRUTAN		
			DIRA, BIZKAIERAZ HURA			TOKI HORRETAN AZKENA ETA LEHENA	
GARAITU ARRESKE					GABEZIA BIGARREN URTAROA		ERRESISTEN- TZIA OIHU, HOTS
		ABAGUNE, AUKERA NORI ATZIZKIA		⑤ EZ EME			
OIHALEKO URRATUA JANARIA						EUSKALTEGI SAREA TONA	
			NAFARROAKO UDALERRIA				

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① Antzokia eraikitzeko orduan, lehenengo eta behin, kale honetako auzotarrak konbentzitu behar izan zituzten; izan ere, eraikina aurrekoa baino handiagoa izanik, kalera aire freskoa sartzea galarizko zuenaren beldur ziren. Azkenik arkitektoak orientazio berria eman behar izan zion eraikinari.



② ...Crisostomo Arriaga, bizkaitar musikagile honen omenez du izena Arriaga antzokia. Hasiera batean, Bilboko Antzoki Berria izena jarri zioten, baina Bilboko musikari ospetsua omentzen duen Arriaga plazan kokatuta dagoenez, berehala jendea Arriaga antzokia izena erabiltzen hasi zen. 1902 urtean ofizialki jaso zuen izen hori.

③ Joaquin..., garaiko udal arkitektoaren lana izan zen Arriaga antzokia. Fatxada diseinatzerakoan, Parisko Opera antzokian lortu zuen inspirazioa. Halaber eskulturak egin zituen Jose Solerrek, Renaissance antzokian.



④ 1890eko maiatzaren 31n, arratsaldeko zortzietan, altxatu zen lehenengo antzokiko oihala, eta publikoak Amilcare Ponchielli-ren obra hau ikusi zuen gau hartan.

⑤ Federico... arkitektoa bilbotarra arduratu zen Arriaga antzokia berritzeaz, 1914an gertatutako sute baten ondorioz ia erabat suntsitu ondoren. Ordu arteko artxibo guztiak galdu ziren sutean.

Ebazpenak

J		I		O		M		B		G		
A	T	E	I	R	R	A	B	E	D	I	Z	B
K	A	L	R	A	K	N	I	R	I	A	A	D
I	R	E	E	B	A	K	E	S	L	A	K	J
A	R	A	A	Z	I	T	O	K	A	G	U	M
U	T	A										
R	A		U		E	A	A	R	D	R	O	L
A	D	A	G		Z	A	B	B	O	C	U	R
N			A				O	G	A	O	N	B
T												
Z	A											
I	A	E										
A	K											

Pilar Mayo. Skolae programaren koordinatzailea.



Pilar Mayok nahiko lukeenaren kontra, ika-mika politikoaren erdigunea hartu du azken asteetan Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren Skolae heziketa programak. Eskuin nafar eta espainiarra kristau taldeekin lerratu dira, berdintasunerako hezkuntza erasotzeko. Muturreko titularrak utzi dituzte bidean.

“Desberdinkeria eta eredu maskulinoa erreproduzitu ditu eskola mistoak”



Ander Perez

@ander_prz

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Bidean mugarri

“Orain 21 urte hasi nintzen berdintasun teknikari Iruñeko Udalean, eta Nafarroako Hezkuntza Departamentuko berdintasun eta bizikidetzatza ataleko burua naiz egun. Nire ibilbidean, urrats bakoitza hurrengorako oinarri izan da. Sanferminak berdintasunean taldea koordinatzea, adibidez, garrantzitsua izan zen. 2008an lehen hezikidetzatza plana egin nuen; orduko hutsak legealdi honetako abantaila izan ditut. Hezitzaileak ahalduzten saiatu gara, eta agian asmatu dugulako sortu da sortu dena. Jende asko ari da programari eusten. Niretzat, profesionalki, mugarri bat da Skolae. Gozatzen ari gara. Une honetan, 1.400 pertsona ari dira programan formatzen. Hunkitze-ko moduko kopuruak dira”.

“Barkosek jostailu erotikoak erabiltzerak behartuko ditu 0 eta 6 urte bitarteko haur guztiak”.

Indartsu hasi gara. Uste dut, edo pentsatu nahi dut, prentsan agertu dena interpretazio oker bat izan dela. Skolae, txikitan -3-4 urtetik aurrera-, gure gorputza ezagutzeko egiten diren jolasez ari da, betidanik haurrentzako sexu jolasak (edo jolas erotikoak) deitu diren horiez. Asmoa da jolas horiek baliatu eta despenalizatzea, gauzei izena jartzen ikasteko, gure sexu organuek izena dutela ikasteko, eta argi hitz egiteko publikoan ukitu daitekenaz eta ezin denaz, norberak jakin dezan nahi ez duen zerbait egitera behartzen dutenean zerbait gaizki dabilela, eta esan behar duela. Horretaz ari gara. Ez dugu eskolara eramango helduontzat jolas erotikoa den horrekin zerikusirik duen ezer. Horregatik, berriro diot, pentsatu nahi dut irakurketa okerra izan dela, baina egin duenak jakin beharko luke irainduta sentitu direla kalitatezko sexu heziketa egin nahian dabilzan hezitzaile asko.

Irakurketa okerra ala asmo txarrez egina?

Ez dakit zein den interpretazio hori egin duten pertsonen asmoa, eta oker bat izan dela nahiko nukeela diodanean da hala nahiko nukeelako benetan. Ez dakit gehiago, eta ez dagokit niri irakurketa politikorik egitea.

“Genero ideologia” inposatzea ere leporatu dizute.

Berdintasun politikez ari gara, eta berdintasuna oinarritzko eskubide bat da. Oinarritzko eskubideak ez dira ideologia, gizarte osoak duen zerbait baizik. Haur guztiek dute berdintasunerako hezkuntza jasotzeko eskubidea. Hezkuntza komunitatea, kasu honetan, horretarako bitartekoak ari da jartzen. Ideologia hitza sobran da berdintasuneko hezkuntzaz ari garenean, baina genero ideologiak hitz egiteak, agian, hain justu berdintasuna ikastearen aurka dagoen ideologia bat existitzen dela erakusten du. Kasu horretan bai, ideologiak hitz egingo genuke, eta gauza larriez.



Familietan irakatsi beharreko gaiak direla ere esan dute.

Inork ez du familiak eman beharreko hezkuntza ebatsiko, hori espazio askea da. Legeak, hori bai, hainbat baldintza eta eduki betetzera behartzen du hezkuntza komunitatea eta departamentua. Berdintasunerako heziketak ez du familien espazioa inbaditzen, ikasle guztiek eduki horiek jasoko dituztela bermatzen du, haien eskubidea baita. Gero, familia bakoitzak zehaztuko ditu bere mugak.

Berdintasunerako bidean, zer da eskola?

Eskola, familia eta hedabideekin batera, sozializazio eremua da, eta ikaragarriko ardura du berdintasun ereduak transmititzeko orduan.

Baina bada ere desberdinkeria erreproduzitzeko eremua.

Noski. Skolaerekin esku hartzen ari bagara, eskola mistoak konponbiderik ekarri ez duelako da, eredu maskulinoa erreproduzitu duelako. Eskola mistoak desberdinkeria mantendu du. Bai, inork ez du nahita desberdinkerian hezten, baina emaitzak hor daude, indarkeria hor dago, emakumeen ekarpenak ez dira aitortuak. Skolaek ez du soilik

“Genero ideologiaz hitz egiteak, agian, hain justu berdintasuna irakastearen aurka dagoen ideologia bat existitzen dela erakusten du”.

aldaketa proposatzen ikasleekiko lan egiteko moduan, baita irakasleekiko moduan ere: nola zuzentzen dira neska edo mutikoengana? Nola mantentzen da indarrean dagoen eredua? Nola erreproduzitzen dira eskolan genero estereotipoak? Irakasleagoa berrikustea da planteatzen duguna, heziketarako eragile aktiboa den heinean.

Irakurketa “okerretik” harago, zer da Skolae?

Skolae ez da sexu heziketarako programa bat. Programa zabala da, ongi baloratua, ikaslea hezkuntza sistema osoan zehar lagunduko duena, berdintasunean hezi dadin. Lau ardatz ditu: desberdinkeria aurreko kontzientzia, autonomia pertsonala, ahalduntzea eta sexu heziketa zein tratatu onak. Programak ez du klasean berez ematen ez den ezer probokatuko, eta hori da, hain justu, bere gauzarik interesgarrienetako bat: eskolako irakasleek gauzatuko dute, tutoreek, ikasleak ezagutu eta noraino sartu daitezkeen ongi dakitenek.

Helburua zera da: ikasleek eraiki ditzatela haien maitasun harremanak, haien indar pertsonala, haien erabakiak, genero desberdinkeriarik gabe. Funtsezkoa da, neska-mutilek indarkeriari aurre egin eta abusuak saihestu ditzaten, eta haien sexualitatea naturaltasunez, plazerrez, zoriontasunez, arduraz eta babesarekin bizi dezaten.

Zertan da berritzailea?

Berritzailea da progresiboki lantzen dituelako edukiak, adin bakoitzerako egokituta. Berritzailea da ere derrigorrezkoa delako, eta beraz, ikasle guztiek landu beharko dutelako. Ez da irakasleagoaren militantziaren arabera izango, eta ez da eroriko urte honetan, demagun, ikastetxeak berdintasunaren ordezkartasuna edo birziklapena lantzea erabaki duelako.

Lagundu al du polemikak programa baliolan jartzen?

Berez ezagutuko ez litzatekeen eremu askotan ezagutzen da orain, baina kritikak sekula ez dira onak hezkuntza programa bati balioa emateko. Kritika soberan dago, begirada desenfokatzeko duelako. Nik, erabaki ahalko banu, hau guztia pasa ez izana erabakiko nuke. ■



Bilboko txikiteroek Euskaraldiarekin bat egin dute "Ardobizi" eta "Edariprest" txapak jantzita

Aurrekaririk gabeko erabakia hartu du Bilboko txikiteroen elkarteak: urtetan tabernaz tabernako erronda gaztelania hutsean egiten aritu ostean, Euskaraldiarekin bat egitea erabaki dute, hizkuntza ohiturak aldatzeko. Baina beraien modura. "Ardobizi" eta "Edariprest" izango dira txikiteroen konpromiso



-maila adieraziko duten figurak. "Ardobizi"-ek, nagusiki, ardoa edango dute, baina konprometitzen dira laugarren txikitotik aurrera esaten hasten diren zentzu handirik gabeko gauzak euskaraz esateko. "Edariprest"-ak berriz, nagusiki tabernariak izango dira, baina poteatzen ari den taldea handi samarra denean,

barratik kuadrillakoengana edalontziak eramaten dituen txikiteroak ere bete dezake zeregin hori. Bilboko txikiteroek adierazi dutenez, euskararekin konprometitzeko lehen urratsa izango da hau. "Korrika etortzen denean ez dugu lasterka egingo, baina klik egiteko prest gaude, ez egin dudarik".

SAREAN ARRANTZATUA

Euskaraldia gorpuzten ari da



Donostiar bati patatekoa eman dio, lau t'erdiko finalean nor animatu eta nor iraindu ez zekielako

Gipuzkoarra da Jokin Altuna, eta horregatik hark irabaztea nahi zuen Jexuxmai Odriozola donostiarrak. Baina Altuna Athletic-zalea da, eta horregatik nahi zuen hark galtzea. Ezkurdia berriz nafarra da; ez da bizkaitarra izatea bezain txarra, baina ezta gipuzkoarra izatea bezain ona ere, eta horregatik hark galtzea nahi zuen Imazek. Baina Ezkurdia realzalea da, eta horregatik nahi zuen hark irabaztea. Partida osoan majo sufritu zuen Odriozolak, pilotari batek tantoa egitean ez zekielako txalo jo ala txistu egin. Saiatu zen Diario

Vascon bere trantzetik atera-ko zuen informazioa topatzen, baina alferrik, kirolekako lehen orrialdean Altunaren jatorriari gorazarre egiten zioten, baina hurrengoan Athletic-en aurka egiten zuten sutsuki. Geroztik eta urduriago, hamaikagarren tantorako frontoiko tabernan biba eta biraoka zen Odriozola, azala horitzen hasi zitzaion arte, bost euroko gilda eztarrian trabatuta. Ospitalera eraman zuten eta han da oraindik.



Odriozola pozarren, frontoiko patriarkaren alboan.

JOSEBA TAPIA

Victoria Eugenia

abenduak 9
igandea



ARGIA

berria

Gipuzkoa
Eres lo que lees

19:00-tan



WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS/SARRERAK



Victoria Eugenia Antzokia:
943 48 18 18
Antzoki Zaharra T Principal:
943 48 19 70



Donostia Kultura
txartelarekin
Con la tarjeta
Donostia Kultura

VICTORIA EUGENIA
ANTZOKIA

DONOSTIA
SAN SEBASTIAN

donostia
kultura



ARRIKRUTZEKO LEHOIA

ERAKUSKETA
SAN TELMO MUSEOA
2018-11-15 // 2019-2-10

San Telmo Museoa.
Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia
T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus / @santelmomuseoa

STM
San Telmo Museoa

 **DONOSTIA**
SAN SEBASTIÁN

 **donostia**
kultura

|G|O|R|D|A|I|L|U|A|
Gipuzkoako Ondare Shikumen Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gaiaketa
eta Irati Departamentua



 **GORAIN**
KULTURA

 **MUSEO**
DE LA
EVOLUCIÓN
HUMANA

 **Junta de**
Castilla y León

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA IRONKUNTZA
POLITIKA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **eitb**

 **kutxa**
FUNDATIA

EL DIARIO VASCO